

**EDORTA JIMENEZ**

# **Atoiuntzia**



Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 1990 Edorta Jimenez

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 1990eko azaroa

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: [susalit@armiarma.com](mailto:susalit@armiarma.com)

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

# Naufragoa eta kupela

Hanka bat mantapean, kanpoan bestea, lo dago Balbina. Lo dago gaua ere txakur-ahausi ezean. Eta itsasoa lo dago gau lokartuaren baretasunean. Argitxoa baino ez dago akordata, Balbinaren eskatzean, olio gainean erre eta erre gau osoan, defuntuen arimen entretenigarri. Amata egin da defuntuentzako argia. Txakurren ahausiek akorda eragin dute Balbinaren etxeko txakurra ere, eta etxekoandrea akordata dago, oraintsu arte lo egon den gau iratzartu berrian. Itsasoa ez dagoela lo pentsatu du bere artean eta ikaratu egin da eskatzeko lanparila amatata ikusi duenean. Itsasoan zeozer txarra egingo delakoan dago eta, eneka, piztu egin du atzera ere defuntuentzako argia. Txakurra zelan isildu eragin, aldiz, ez daki. Kalteren bat izango da itsasosan.

Errekatxoaz beste aldeko oilarraren lehen karkara gorriak goiz argia eztenkatu orduko portuan dago Donato. Karkara, odolaren bustitasunaz melata heldu zaio belarrietara Donatori. Por-

tura sartu ezinik dabil bapora hor aurrean. Barra txarto dago. Beste parrokiakoak heltzen diren era berean errepikatu egiten dira berbak. Penaz, makal, txarto, oker, ez dago zer eginik. Zelan alztatu ote duen haize hau, atzo hain bare egon denean; hara, txakurrak ere ahausika hasi dira zoroak legez eta. Txopuetatik dena ikusten da baina, ezin ezer egin. Itsaso handia dago.

Hamaikak aldera hondora joan da bapora, hiru lau bidarrez barrako haitzen kontra jota. Euririk gabeko unadetan haize gogorregiak jotzen izan du eta haizerik gabeko unadetan zerua behera etorri legez jausten izan da euria. Holan bada, ezin ezer egin baporeko gizajoei laguntzearren. Ermitako kanpaiak jotzea ere, zertarako? Nongoa ote den bapora, ez da beste berbagairik egon itsasoa baretu artekoan. Itxuraz, giputza, batek; ondarrutarren antza hartzen diot nik ba, besteak. Arratsalderako baretu egin da itsasoa.

Barrako gurutzeari lotuta topa dute bat. Baporetik salto egiten jakin du horrek. Ez da beste inor, ez bizirik ez hilda ikusten inguruotan. Dena dela irten egin dira, kristinauren bat geratu ote

denentz bizirik, han edo hemen, portutik hiru bapor. Inasek ikusi du lehenen morroia. Hara, hara! Ez duk ikusten han, Ogoñon, seinaleak egiten?

Abante Ogoñorantz! Oraingorako denek ikusten dute. Alkondara edo eragiten du buru gainean, Ogoñoko hormako zuloetariko batetik morroiak. Karajo, hara zelako lekua topa duen horrek, Martzelok txiskeroari ezer atera ezinik dabilen artean. Hurreratu ahala garbiago dute naufragoa. Gaztea ematen du. Horrexek salbatu du hori, gaztetasunak. Trankil, txo, bagoaz eta. Kontuz hurreratu dira hormara, olatuak dagoz eta. Salta egik uretara, geuk hartuko haugu eta. Bildur barik!

Harrituta geratu dira Martzel eta Inas, biak, uretara bota, kupeltxoa bota duela, bota ere, ikustean. Hartu egizue barrila. Ze barril eta bari-londo, txo, salta egik uretara, ezin gaituk hormazpira hurreratu eta. Horretxek barrilak salbatu eustak bizia, bai?, eta hori barik ez noiak inora. Aiba dios, morroi hori burutik dago. Txo, salta uretara, ze karajo! Morroiak ezetz, haretxek barrilak salbatu diola bizia eta bera ez doala

inora barrila, zorioneko barrila, beragaz eroan barik. Azkenean altza egin behar uretatik barrila, eta orduan salta morroiak uretara, altza motorrera eta umeak amari baino sendoago morroia barrilaren inguruan besoak, barrilari atxikia, pegata legez. Eta halantxe porturaino. Hura barrila, hura dela berarentzat Ama Birgina eta santu guztiak, ze harexek salbatu diola bizia eta.

Modestoren gurdian ikusi du joaten Pedro Marik barrildun morroia, alboko herrirantz, trena hartzeko bertan. Modestoren alboan jezarrita, hankartean kupela, zerura begira begiak, zoroarenak legez, beste mundukoa eman dio naufragoak mutikoari; ez du, haatik, ziurregi jakin infernukoa ala zerukoa, zein mundutakoa.

Hurrengo domekan sermoi gogorra egin du parroko jaunak. Barrako gurutzeari eutsita salbatu zenak promesa egin ei zion Donieneri eta halaxe joan ei da, Gaztelugatxeraino, oinutsik, meza entzuten. Bestea berriz, ai bestea, kupelak salbatu duena sinestuta, ez da elizara hurreratu ere egin. Gizajoa! Jainkoaren zigorra -a, zelako berbak parroko jaunak- izango duela ziur. Hurrengo baten kupelak ere hondora joateko agin-

duko ei du gure Jaunak, eta pekatari handi hori ito egingo ei da. Une honetan atzerantz begiratu du Pedro Marik abadeak hola egitea debekatuta daukan arren. Arimen altareko koadroari begira geratu da mutikoa. Bertan ikusi du naufragoa, barrilari eusten, sugar itzelen artean. Su hartu du barrilak halako batean eta eskutsik geratu da laster naufragoa. Koadroaren goikaldean ainguruak tronpeta jotzen hasi dira. Ekaitza noiz ekarriko, ez dagokigula geuri jakitea, Jainkoari baino, eta era berean heriotza. Purgatoriora baino ez dela joango naufrago koitadua harrokeria alde batera utzita, Jainkoari eskertzen badio bizitza salbatu diolako. Pedro Marik purgatorioko sugarrezko itsasoan hondora jausten, barril barik, halaxe ikusi du Modestoren gurdian albo-ko herrira, trena hartzearren joan dela diote, joan den begi zoratudun hura.

Marmita euki dute jateko etxean Balbinak eta. Mahaira jezarrita, ez du ezer jan gura izan Pedro Marik, ha naufragoa ifernura joaten ikusi duela berak eta. Hara zelako gauzak ikasten dituen umehonek elizan eta hobeezbada joaten. Tira ba! hobe zeu ere noiz edo noiz konfesaten

joango bazina. Hondatu egin zaie bazkaria Inasi eta, umearen ala amamaren ganorabakokeriagatik ez daki umearen aitak. Azkenean etxeke txakurrak eta katuak, erdi bana egin dute kazularan geratu dena.



# Oilarraren karkara gorria

Mila bederatzirehun eta bosteko maiatzaren hogeitalauean, osteguna, Bilboko portua jo zuten untzien artean John Marychurch izenekoa dago, lastran Baionatik etorria.

Hegoaldeko hiritar bakarra dago eskifaian, Juan Paredes.

Juan Paredesek goizeko zazpitan utzi zuen untzia Portugaleten. Oinez jo zuen Bilborantz. Galdarak jagoten emandako orduak ezarri izan zioten zama arindu gura izan zuen, hurrean. Zorrotzara heldu eta Pistolasenean sartu zen, sama bustitzearren.

Gran Pelea de Gallos zioen kartela irakurri zuen, basokada ardao husten zuen artean. Once de la mañana, Circo del Ensanche. Txalekoko poltsikotik zidarrezko erlojua atera eta ordua begiratu zuen. Hamarrak, sasoiz niabilek. Edandakoa pagatu eta kalera jo zuen.

Bilboraino falta zuen bide zatia tranbeaz egi-tea erabaki zuen. Ospitale berriaren aurrean igerotzean herioaren irribarrea sumatu uste izan

zuen, teilatuen gainean hegan. Populu txiroaren kanpo ez ederra ez etxe bakoitzeko gerra igaritzen saiatu zen, denbora ematearren edo, bidai-kideei begira begira. Alameda de Mazarredo. Circo Nuevo del Ensanche.

Kalean berriro. Artez jo zuen zirkora. Gallerías de los Señores Zuvillaga y Vizcaíno. Sartu egin zen.

Lehen oilar biak hamar bat minutuz ibili ziren hara eta hona, elkarri mokokadaka eta ezproinkadaka. Juan Paredes ez zitzaien adi egon. Oilar-zulo hartako zarata eta aldarriek, esturak, izerdi keek, galdara-gelako giro astuna ekartzen zioten behin eta berriro gogora. «Antxon, Antxon» aldarri egiten zuten, alaruka, parrokiarioetarik gehienek. Oilarren baten izena edo, Antxon edo Anchon hura. Gandorrak, mokoak, ezproinak, luma beltz disdirakorrak,... zeozer edan beharra zuen Juan Paredesek. Alde egin zuen jendartetik.

Aguardiente? itaundu zioten aterantz datorela. Yes, esan zuen, barruko berriketetan erabilitako euskaratik Bilboko erdarara igarotzean erdera guztien ate bakarrean dei egin izan balio-te legez. Perdón, sí. Ingalaterratik edo? euskaraz

ekin zion besteak berriro. Ez, Baionatik barku ingelesean. Hara ba! Hala de ze, diru ederrak ekarri dozuz ezta? Diruak nik? Zertarako? Bostgarrenean egizu posturea gorriaren alde, egistazu kasu, lagun.

Edari merkeak arramaska egin zion saman. Gorriaren alde bostgarrenean. Cien pesetas apuesta máxima. Halaxe zion hormako kartel zaharrak.

Jendartean galdu zen atzera ere Juan Paredes. Ikaratuta alde egiten ikusi zuen oilarretarik bat, hankan eraztun azula zeukana, hain zuzen. Gorria bostgarrenean.

Bigarren mokogerrarako orduan egonezina eta artegatasuna ziren nagusi hango ikusleengan. Vizcaínok altzoan ekarri zuen oilarra. Urregorizkoa zen. Ume txikia legez ekarri zuen, jakapean babestu guran, laztan eta laztan. Behan utzi zueneko, zotz!, hura oilarra. Harrotuta. Ikusleak banan bana aztertu gura izan balitu legez, ti-ta ti-ta higituz lepoa, zirkulua osatu zuen, bera erdian eta parrokiakoak inguruan. Erredios. Denak isildu ziren. Zuvillaga harenaren txanda etorri zen ostean. Erdi erdiraino ekarri

zuen kaiola eta guzti. Atea altxatxen hasi eta Gogor Niña esan zion mokora leun eta erabakitsu Zuvillagak oilarrari. Ikuslegoa zoratu egin zen Niña esaten entzutean.

Ez zen hiru minututik gora egin behar izan Niña zorioneko hark izen bako oilar koitadua menperatzeko. Juan Paredesek berotasun gorria nabaritu zuen zainetan gora garunetarantz igiten. Ehun pezeta, gehienezko posturea. Bostgarrenean gorriaren alde.

Ordurarteko oilarrik ederrena atera zuen Zuvillagak hirugarren pelikadarako. Zaldia ematen zuen, tente gandorra eta tenteago atzeko lumak. Ezta indioilarrak berak be hain ederra popea. Vizcaínorena ez zen txikiagoa, aitzitik. Hasi baino ez eta, lehen mokokada sailean itsu utzi zuen Zuvillagarraren neskatxoak Vizcaínoren morroskoa. Hala eta guztiz ere, eta hamabi minuturen buruan, oilar biak batera kendu behar izan zituzten pelikadatik, ez nagusirik, ez zapaldurik, berdin biak. Txistu hots batean egin zien agur parrokiak. Eta orduantxe konturatu zen Juan Paredes ohartu bakoan igaro zitzaizkiona azken oilarren artekoan garaile bihurtutakoaren

eraztuneko kara. Gorria galderetako sua, azula itsasoa, oskorria itsasganean bai, baina itsasoa azula atzera be laster. Azularen alde jokatu zuten laugarrenean eta gorriaren alde bostgarrenean. Vizcaínoren laugarren oilar urregorritzkoaren karkara gorria aditu eta aldi berean jakin zuten zer egingo zen. Beste xurrutada bat behar zuten Juan Paredesek.

Udaletxeko kanpaiak hamabi bider jo zuten. Eguerdi gorria. Gorriak irabaziko jok laugarrenean eta azulak bostgarrenean. Kakazaharra!

Laugarren oilarrauzkak aldarri zoroak sorrazten hasi zitzaion parrokiarioei. Akatu, akatu, alarreak eta karkarak aborrots bakarrean nahasten ziren.

Besoia ahora eroatean konturatu zen Juan Paredes. Odolezko lohitzuneak zituen alkondarako besoan, gorri eta borobilak. Oilar itsutu berri koitadu haren begietakoak zirela begitandu zitzaion. Ederra egin joat. Aurreragoko parrokiario bera etorri zitzaion berriro. Lohituta alkondarea? Dozena bat alkondara barri erosiko dozak, azularen alde apostu eginez gero bostgarrenean.

Juan Paredesek begietara artez begiratu zion aurrean zuen morroskoari, alkondara besoko odolgunek kentzen saiatzen zen artean.

Gorriaren alde egiteko esan deustak lehen ba. Ene, nik neuk esan deuat? Heuk, bai. Kanbi-juak egon dozak ba.

Ikusleen orroa itzelak isilarazi zituen Paredes eta bestea. Bost minuturen buruan akatu zuen gorriak azula laugarrenean. Bostgarrenean egik gorriaren alde. Ez dok nire gogoko kolorea, erantzun zion Juan Paredesek. Ez dok polita, ez; ni Txikito nok; egik gorriaren alde, bai. Amaitutakoa kanpoan egongo nok, heuri itxaroten. Kanpoan, zertako?

Juan Paredes ez zen bostgarrena ikusten geratu. Cortes kalera erretiratu zen, Txikito haren alboan, isilik.

Hautsi egin zuen isilunea, harriduraren harriduraz, galtzarbean zer daroak itauntzean, Txikitori jaka merkearen pean halako multzoa igartzun eta. Egonarritik irten ezinik geratu zen Pistola entzutean erantzun bakartzat.

Eguerdia -koipetsua jaten txiriboga merkean- arratsaldea -ardao merkea edaten lekutik

kendu barik- eta gaueko lehen orduak ere -Marzana kaleko beste zulo batean-, hirurak behar izan zituen bera kanpoan izandako azken hiru urte haretan egindakoen berri jakiteko.

Errege gaztea Ingalaterrako Printzesarekin ezkonduko dok zortzi egun barru, maiatzeko hogeitamaiketan, aitu dok? Bestelakoetan, dena bardin, huelgak, atxiloketak, txapel okerren karga bortitzak, langileen arteko alderdikeriak eta sindikatukeriak, tiroak eta hilketak be. Hementxe berton, orain gagozen taberna honexetan izan zituan gogorrenak, iazko julioko hogeitahiruan. Juan Paredesen kaskezurraren pean lekua eskatu zuten Txikitoren azken hitzek.

Esandako egun horretan, gaueko lehen orduetan sozialistak, hamar bat edo, Vega izeneko tabernara agertu dira. Vega hori kontzejala da. Errepublikanoa. Zarataka hasten dira sozialistak errepublikanoen kontra. Zaratak, laster, beste zeozer dira. Ukabilkadak, aulkiak eta mahaiak aidean, boteilaren bat edo beste apurtuta. Betikoa. Baltzuneak begietan, odoletan ezpainak, lepoak mangata, hazurren bat apurtuta. Biharamunean errepublikanoen txanda da. Cerezo

jauna, kontzejal sozialistea, txiribogina da Marzanan. Berarenera agertu da errepublikano talde polita. Bartekoak konpontzea eskatzen dute, gogor. Sozialistak ez dira atzean gelditu gogorkeriaren aldetik. Halako batean, tabernako atean dagoenak, sozialistea berau, paparretik eutsi deutso Santiago Doce gazte errepublikanoari eta pistola tiroa zarratua danba buruan. Hilda dago gaztea. Tiro egin ebana Toribio Pascual izeneko kontzejal sozialistea dela dinote orain. Tiro gehiago be egin da gau horretan. Sozialistea den Claudio Cerezok ere pistolari sua atera eutsola dinote. Zauriturik be egon da. Hurrengo egunean, atxiloketak, gartzelara batzu, ihesean besteren bat, honek, hau dinola, besteak iruntzitarra, kakanahaste ederra, lagun.

Hogeitazortzian hasiko dok juizioa, berton izango haiz? Bai, eta bertara agertuko nok.

Berandu jaiki zan biharamunean Juan Paredes. Non hago Juan, bere buruari itaundu eta apurka apurka argitzen hasi zitzaion dena. Txikitoren etxean hago, ez haiz akordatzen ala? Argi lodi eta horiska sartzen zen leihoaz barrura. Iluntzea gainean zuen. Gela arakatu zuen, ohean je-



zarrita. Ate azpitik jaurtita beten batek, hantxe zegoen arratsaldeko egunkaria, behearen gainean. Altxa eta lehen plama irakurtzen hasi zen. Peleas de Gallos.

Quinta y última, bostgarrena, Zuvillaga con su «Madrina», 3-12 y eta Vizcaíno, jaka jabada de 3-18, ezin zuen ezer ulertu. Pelea superiosísima, egundoko oilarrauzka, jugándose el dinero golpe a golpe por ambos, saliendo triunfadora la de Vizcaínorena. Tiempo hamabi minutos. Apuesta ehun pesetas.

Vizcaínorena, zein ote zen, gorria ala azula, oroimenean argia egin orduko beste berri batek bete zituen Juan Paredesen begiak. Provincias. Llegada del verdugo. A la llegada del verdugo que ha de ejecutar al reo Fernando Lardea -erderaz hasi zen eta konturatu barik aldi berean hasi zen halamoduzko traduzioa egiten- fardelariak eta gurtzainek ez eben ezertan be lagundu gura izan, halan da ze, oinez egin behar izan eban gartzelainoko bidea, txapel okerrek eskoltata. Reoa, lo faltagatik edo, lo idoro eben, para atarle y conducirlo a la capilla -ez zuen lar zuzen entelegatu zati hau, kazetilariaren erruz, oker

idatzita bait zegoen- eta bertan dago, hankak eta eskuak lotuta, arratsaldeko laurak arte, que será ejecutado, gartzelako patioan. Egurrezko goilareaz egindako kutxilo antzekoa topa jako, zorrotz zorrotza, esan gura dauela horrek, ba, laster hil egin behar dabena jakinez gero ziur bere burua hiltzen dauena.

Sandios, esan zuen hagin artean mamurtuz hitza Juan Paredesek, begiak egunkariko beste albisteetara indarge irristatzen zitzaizkiola.

El rey almorzará con su prometida. El día magnífico contribuye a ser muy agradable la estancia en El Pardo. El Nervión arratsaldekariko kazetilariari euskaradatxoa sartu zitzaion erdera hain dotorean. Bat batean Bilboko Las Cortes kaleko zaratarekiko kontzientzia izan zuen Juan Paredesek. Gelan sartzen zen argi aratzak justizia iragarri gura zuela eman zion.

Eurak dozak borreroak! aldarri egin eta kalera irten zuen. Aituko jok, bai, oilarraren karkara gorria Erregek berak be.

# Geu gagoz testigu

## I

Geu gagoz testigu. Eskolatik irtendakoan, han ikusten genuen, sarritan, ur-hodiak konpontzen. Hurreratu egiten ginen. Lauxak zuloaren alboan izaten zituen pilatuta. Hantxe egoten zen tresnen kutxa metaleztatua ere. Eliza txikitxoan ematen zuen, zilindroerdi erako teilatuak koroiztatua.

Zuloan sartuta aurkitzen genuen Ismael. Aldez aurretik jakiten genuen non edo non apurtua zela hodiren bat, eskolako iturrian ura kendu eta maixuak ez zigulako kaka egiteko baimenik ematen. Don Marciano esaten genion maixuari, mendekutzat edo, betaurrekoak eta izena -Mariano- logika sinkretikoz elkartuta biak. Herrira lehen laugurpildunak heltzen hasi zirenean izan zen hasierako guzti hau.

Okinak -Okak-, berak ekarri zuen lehen kamioia herrira. Ez zuen giltzez ixten atea eta kabi-

nan sartuta ematen genituen arratsaldeak, arrapaladan alde egin behar izaten genuen arte. Gurpilak husten ere ikasi genuen. A!, untzea hartu, balbulan sartu eta haizearen txistutxua -zarata leuna ateratzen duen uzker luzatua lakoa- erruberatik ihes egiten entzun genuen lehen bidarra! Atsegin izan genuen, aurreran-tzean, autoak beherantz etorten ikustea, kau-txozko hanka borobilak hustuta, indioen antzera makurtuta eta untzeari sendo eusten balbula ahoan geu, inoren begiradetatik gordeta. Clark Gableren antza zuen gizon harek harrapatu eta berotu gintuen arte. Hori, baina, beste kontu bat da.

Zineko aldatzan uzten zuen Okak kamioia. Maguelen etxea ere jausten hasi ei zen kamioiak eta autoak zirela eta. Oraindik ere makurtuta du fatxada nagusia, hainbeste urteren buruan. Ez da jausi, aitzitik, eta niri behintzat ohitu egin dela ematen dit. Lauxazko kale hura, ostera, ez zen kamioiak zapalduak izateko sortua. Behe-rantza egiten zuten harriok eta, gaur bai eta bihar baita, hodiren bat zulatu. Urak gainezka egiten zuen laster, nahiz eta gure herriko estol-

da-sarea modernoenetarikoa izan bere garaian, geroago jakingo nuenez. Zulo ireki berrian, lauxen azpian, harea agertzen zen, ze kale hori aintzinako erriberaren gainean dator itsasoraino. Lauxen azpian hondartza zegoen.

## II

Lauxen azpian hondartza zegoen. Ismaeli ez zion inork sinesten. Guk bai, guk ikusi egiten genuen agirian geraturiko hareatza. Han izaten ginen, zulo hegian. Heroeak pelikuletan piztiak lez uxatu arte gu Ismaelek. Kandileja, deblauki, hodi zulatuaren gainetik kendu eta, geuri zuzentzen zigun tresna. Suzko mihi luzeak irteten zuen, hots nagi dardartia ateratzen zuena. Sugearena edo muskerrarena zela ematen zidan, mehe eta koloretsua, uretan jausitako gasolioak utzi izaten zuen gorriska, azulkara eta morea dantzan zituela airean. Ez genion ikusten uzten, antza. Ume aldra zuloaren inguruan, guardasol moduan.

Kandilejarekin egiten ziguin amenazu. Eta nik iturgina izan gura izaten nuen, albanilak ikustean albanila izan gura izaten nuen tema berdinaz. Elizatxoa ematen zuen kutxa metaleztatua eta kandileja edukitzeko, arratsaldeetan erretzen zuen boltissierarekin batera. Ez zion inork ere sinesten Ismaeli. Berunezko hodiak kandilejaz eta xaboi antzeko beste zeraz berlotzen zituen gizon trebeak, beti puro erdi errea ahoan, ezin gezurrik esan harek.

Neu nago testigu. Aitak goizago jaten zuen eguerdia, edo orain bazkaria esaten dena, zapatu-domeketan ezik. Zapaturen baten izan zen, beraz. Erdalduna izan zen gure aita.

-Ismael está como una chiva.

Indabekin batera jan ohi zuen kipulari xerratxoa kentzen zion bitartean kanporatu zuen. Nik ez nuen jakin «chiva» berbaren esangura eta arreba nagusiak argitu zidan.

-Teilatua ez daukola ondo!

Eta gure aita Ismaeli tabernan entzundakoak kontatzen hasi zitzaion amari. Haserre zen ama, aita berandu etorri zela eta. Ezin izan nuen uler-

tu zertan haserretu zen, noiz eta aitak ipuin hain ederra zuenean kontatzeko.

-Lauxen azpian plaia dago.

Hiru lau bider izan ei zuen Ismaelek Luziaren tabernan -aitak azaldutakoa egia bada behinik behin-, gainerako parrokiakoek jaramonik ere ez zioten egiten eta. Ez nuen edatuna ikusten Ismael, zuloan sartuta, hodiak konpontzen. Horregatik, amak edanda edo ote zegoen galde-tzean, ez zuen halakorik zertan zioen ulertu. Lauxen azpian hondartza zegoen. Edo harea behinik behin. Geu gagoz testigu.

### III

Testigurik, horixe ez zuen Ismaelek, larruazaleko kolore gero eta ilunagoak ematen zuen lekukotasuna ezik. Santa Maria kaleko hamaikagarreneko hodi zulatua konpontzen ziharduelarik, zorabiatu edo egin zen, antza. Goizeko hamarrak aldera izan zen. Ez zegoen edanda. Ezin daburduko. Begiak zabaldu zitueneko, hondartza zabalagoan ikusi ei zuen bere burua Ismaelek.

Bonbatxoa eta kamiseta jantzita -bero egoten zenetan kamiseta hutsik lan egiten zuen, beste behargin gehienek lez-, galduta boltissierri, itsutu egin zuen hango itsasertzeko eguzkiak Ismael.

Patrullero PT-109, J.F. Kennedy-ren soldaduska aldia kontaktzen zuen pelikula harexetako paisaia eman zion leku hartakoak iturginari. Hantxe ziren palmondoak eta plaia, ogi-orea egiteko erabilten den uruna baino meheago eta horiago beratu, itsaso azularen ertzean. Anila ematen zion urgainakoak iturginari.

Erantzi egin zituen arropak. Erraietan untzetuten zitzaion eskuak erakarrita lez jo zuen uretara. Uger egin zuen, luzaroan. Eta irtendakoan aurkitu zuen Imelda, azala ikatz kolorgetuaren berdina zuen emakumezkoa. Ismaelen besoetan nabarmena zen kolore bera -gorputz enborrekoa esnezkoa zuen, kamisetak babestua izatearen eraginez- eta muxarrek duten ahoa baina haragizkoa, irtena, borobila. Etzun egin ziren, elkarren alboan.

Neskari zerion usaina harearenari gehitu zitzaion. Usain biak kresalari zerion zuriskan buz-



tartu ziren eta sudurretan gurdi igo zitzaizkion, gorantz, Ismaeli.

Parrokianoek nekez sinestuko zioten berun errearen hats beroa besterik bereizteko gauza zenik iturgina. Nekezago sinestuko ziotena, neska-karen ipurdi mami mardoetan pausatuta -estu-tuz- esku zabal biak, goikoak baino gorriagoak ziren ezpainenek laztandu zutenik Ismaelen iturri beroa. Berak halaxe kontatzen ei zuen. Aitak ez zuengauza argirik esan gura izaten gure aurrean eta, beranduago gehitu nizkion xehetasunak dira guzti hauek.

## IV

Denok gagoz testigu. Ugaldu egin ziren, franko ugaldu ere, lau erruberaren gainekoak. Progresoa. Clark Gableren bigotearen antzekoa zuenak belarriondokoa jo zigunetik, ez genuen bakantetan baino hustutzen erruberarik. Badaezpada ere.

Nork ikusten zuen matrikula zenbaki altuagoa, olgeta berria asmatu genuen. Edo, bestela,

zenbat Gordini, zenbat kuartrokuatro edo zenbat Renault ikusten genuen. Domeketan batez ere. Herria bisitariez betetzen zen. Errezago apurtzen ziren ur hodiak eta lan handiagoak izaten zituen Ismaelek. Astegunetan edonon aurkitzen genuen. Kendutako lauxen azpian harea izaten zen agirian. Beltzago zuen larruazala, egunetik egunera. Edo neuk ikusten nuen beltzago.

-No anda bien de la cocorota Ismael.

Halaxe esan zuen aitak beste behin. Ama ez zen lar haserre izan ordukoan. Arrebak argitu behar izan zidan cocorotaren esangura. Nik neuk kokoren antza hartu eta Ismael ikusten ei zituen palmondoetako fruituekin lotu nuen berba.

-Teilatua txarto daukola, txo.

Halaxe esan zidan arrebak. Ez nion sinestu, chiva berbaren gainean ere azalpen berbera egin zidan eta.

Sarriago apurtu hodiak eta sarriago galtzen ei zen Ismael lauxapeko hondartzan, Imeldaren bila. Behin batean zuloa, gauez, estali barik utzi zuen arte.

Hamabiak jo zituen plazako erlojuak. Negu ilunean izan ziren kanpai hotsak eta Ismaelen

linterna baino ez zen ikusten kalean. Zulora jo zuen zuzenean. Juankojorenean azken parrokiakoak geratzen ziren, artean ere. Hantxe zegoen zaldia testigu, iturriari lotuta. Zuloan sartu zen Ismael. Zorabioa, eta hondartzan zegoen. Lauxapeko paradisuan. Irrintzi egin zuen zaldiak, zuloatik batek irten beharrean bik irten zutenean. Juankojorenean ziren parrokiakoek ez zuten giza itxura bakarra baino ikusi, hain iluna izan bide zen Imelda neguko gau itzalean. Zaldiak, alabaina, usaindu egin bide zuen, irrintzi egin zuen eta. Halaxe kontatzen ei zuen Ismaelek tabernan.

Gero eta gutxiagotan ageri izaten zela tabernara, eta etxean edaten zuela. Aitak esaten zuen. Eta amak beti erantzuten zion berdintsu.

-Beben otros siempre.

Inork edaten du beti, beti inork. Euskaraz lez esaten zuen erdaraz eta aitak, hala ere, ulertu egin zion. Urte asko ziren elkarrekin. Makinatxo bat urte elkarrenak entzuten. Etxean emakumezkoa zuela eta ea zertan atera behar zen bera kalera basoetan galtzen eskuak eta beste, Imeldaren soinean galdu beharrean.

Egia esateko, piztuta izaten ei zuen gau askotan argia Ismael iturginak. Nik baina, alde egin nuen herritik, ikastera. Ez nuen, bada, baten batzu antzeman uste izan zuten itzala ikusi gizonaren etxeko leihoan. Ilbeteetan izaten ei zen. Biluzirik sumatzen zuten emakumezkoa kortina atzean. Gauren baten, konponketetan zen kalearen batean behera ikusi ei zuenik bazegoen. Toledo, adibidez. Ismaelek berak esaten zuen:

-Gabon danori. Tira Eusebio, ez geratu hor eta atera txikitue.

Eta Imelda herriminaz zegoen eta, egun batzutarako desagertua zela esaten zuen, ezkonduen parean utzi guran bere burua. Barre egiten zion parrokianorik ez zen falta. Larruazal beltzaranak, berriz, harexek joditzen zituen denak. Non hartzen zuen kolore ilun hura, palmondoz inguraturik ei ziren lauxapeko plaietan ezik?

Toledo egoten zen sinestuen.

Hain ume ere ez ginela eritzi zion, antza, aitak. Bestela, ez zukeen halakorik esan gu seiron aurrean. Hasita neukan Ofizialiako lehen kurtsoa eta.

-Es una puta lo que tiene y no se lo va a aguantar nadie...

Ordukoan ez nion azalpenik eskatu, ez arrebari ez beste inori. Gure etxaurrean bertan ere putetxea ei zegoen. Banekien zer esan gura zuen berbak. Sasoi hartarako masturbatzen hasita negoen eta makaguendiosik bota ez arren ere, berba gogorrak esaten ausartzen nintzen.

-Se la trae de La Palanca...

Ederra sartu zidan aitak. Arrebak ez zidan argitu gura izan La Palancaren esan gura eta han geratu nintzen, umemokoa lez, trenbideetako biharginek erabiltzen zuten burdinera hegaleginda gogoia.

-Zelako berbak, ene badatxue!

Amamak aitaren egin zuen. Gero, goilarea eta tenedorea elkarren gainean gurutzatu ez imintzeko esan eta biek bat egiten zuten lekuan musua emanda, desegin egin zuen metalezko gurutzea. Ez dut inoiz jakin nondik ezagutzen ote

zuen amamak izen hura. Ez zidan horren itxurarik ematen behintzat.

-...en taxi.

## **Interludioa**

Gehienok gengozen testigu. Gerra osteko GMCen atzean Pegasoak etorri ziren eta, eurotariko bakarra ere desguazatu orduko, Barreirosak ekarri zituzten. Martinek lehena. Zer esanik ez, GMCak maite genituen, aldatz goretan arrapaladan joaten ginen eta, atzeko irtenen baten eutsita. Txoferrak burua ateratzen zuen, kaguan hau edo bestea, ume barrabanok, eta kendu egin behar izaten ginen handik. Ez zioten inongo mesederik egiten kaleari halakoek eta Maguelen etxean ere laster jausiko ei zen, hain zen itzela kamioion pisua. Ez zuen beharrik falta izaten Ismaelek.

Aiuntamientoan ere ardura hartzen hasita zeuden antza, ze laster hasi ziren obrak. Anaia nagusiak eta argazki mordotxoa daukate, obren erdian aterata, neskekin mendira joaten zirene-

koak. Kamara eskasa izan arren -ez dakit nori, Jesusmariri edo- etxekoren batek nabagatetik ekarria, ez da testigu makala. Orain anaia eta ezkondata dagoz eta txikiteoa, ez dute besterik egiten. Ezin izango ditut sekula ere burutik kendu orduko sasoiak.

Ismaelen territorioa murrizten hasita zegoen. Zentzu guztietan. Maguelek lortu egin zuen Santa Maria kalean behera kamioirik ez ibiltzea eta aiuntamientoan lauxak kentzea erabaki zuten. Beraneante larregi izaten genuen herrian. Ez dut gutxi sufritu neuk ur baldekadak igoten inoren etxera, laugarren pisuraino eta, urak kalleko iturrietan hartu behar izaten zirenetan. Orain izanez gero, lauxak tipikoak direla eta, galipota botako zuten kaleetan. Bai zera! Orduko sasoietan baina, etxeak edonon eta galipota eta porlana jangoiko. Kortina atzean baino susmatzen ez ei zen Imelda hura baino neska zoragarriagorik agertzen zen herrian. Bokarta ere ugaritu zen. Eta Ismaeli ez zitzaion hainbeste jaramonik egiten. Gertatu zena gertatu zen arte behintzat.

## VI

Testiguak, zenbat gura, anbulantzia etorri zeneko egunekoaren gainean berba egiteko gertu. Bik berba berdinek, halakorik, ez eta pentsatu ere. Anbulantzien hots adarrek beti eragin izan didate halako zirrara barruan. Zinean agertzen izaten den munduko osagarri bakarra Juankojoren zaldia izan zen gurean, orduan entzun nituen sirena zaratak entzun artekoan behintzat. Beharbada, herriaren aurreko hondartzan ito zenaren gorpua eroateko erabili zuten anda pareta -oihal beltzez estalita-, portuko hareataraino bajatu zutena, pelikuletakoa izan zen. Gizon hura digestioa egin barik uretan uger sartu zelako ito zen, gure amak esaten zuenez. Eta gure amak ez zion digestioa eginda geneukala esateko une egokia sekulakoari ere erizten eta ito zen gizonarekin akordatzeko esaten zigun beti. Saninazio arratsaldean izan zen eta hiru egun eman zituen gorpuk agertu barik eta Gandi eta Iñako ausartu ziren uretatik ateratzen. Urte asko beranduago agertu zen anbulantzia, irlaren atzean neska



gaztea eta ama ito zirenekoan, pantailakoa izan zen. Horiek, baina, beste kontu batzu dira. Juan-kojoren zaldia ez zen pelikuletakoak lakoa. Anbulantziak, bai.

Amaituta zeuden kaleak konpontzeko lanak eta horrexegatik sartu zen ambulanzia portuko karkabaraino. Eskaileretan behera, arazoak izan ziren ohatilarekin antza. Lauxak kendu zirenetik kalean ikusi gabeko Ismael beltzarana agertu zen gure begien aurrean.

-Beitu! Halako kolorerik!

Baten batek esan zuen gure atzean. Gero kendu egingo zuten koarteleko txapel okerre ez zuten gura izaten halako akto protokolarioetan inork euskaraz murtik ere egiterik eta begirada zorrotza eskaini zigun «Haginandi» esaten genion mozoloak.

-Azkenetan ei dabil. Kolea be, beitu, beitu...

Bustiz ebakitzen zituzten «i» ondoko silabak, arrantzaleen moduan. Kaioak bizi ziren, ziur, euren mihietan. Zelan, bestela, halako hotsik. Ez nuen hain gaixorik ikusi Ismael. Betikoa eman zidan. Orain dakit txikitan nagusi ikusi uste izan

ditugunek beti izango dutena aurpegi berbera -nagusi aurpegia, denboratik kanpokoak- gure begietan, elkarrekin hazitakoek beti eskolako sasoiari, aldagaitzak, ikusten izaten moduan elkar. Zahartze bidea kanpoan izandakoek baino ezin dute ikusi. Eurok dakite zelan egin duen aitzurretan denborak gure azaleko ildoan, zelan ehizatzen duen tristurak gure begininietako ordoki argibakotuetan, zelan jausten diren ezpainertzeko amildegietan hitz suizidatuak.

Imeldaren gorpua agertu zen gero. Hormetan eskelak ikusi nituen. Imelda Villanueva Villarino, falleció el... tras recibir... Une itun haretan apeiliduen arteko kointzidentziak eragin zidan zeozer barruan. Izarapean zekarten gorpua, odolgunek beltzituak zuritasunean harrituta legez, kanpoan ageri zen oin beltz bera atzazal gorritz pintatu eta guzti, Rex zinean ematen zizkiguten pelikuleta-koak ziren guztiak. Txapel okerrekin eurak ziren lekuz kanpo desentonatzen zutenak. Kanpaihots ilunen aideak ziren euren trikornioak.

-Ya solo quedan las putas decentes en el pueblo.

Ama iagotik ez dago ordukoaren testigu. Aita mozkortuta etorri zen ordukoan, beste gehientsuetan legez. Eta guri horrek, zer? Allas bera bere kontuekin. Toledo atxilotu ei zuten. Egia, orduan urte pareka kendu zuten putetxea etxeaurretik eta, ez nuen hain sarritan ikusi izaten.

Bestela, aintzinarago, Felik erronka haiek sortarazten zituen garaietan, ia egunero ikusi izaten nuen. Koartela ere ETaren bildurragatik baino, -eta ez diot bildur ez zirenik, nork daki-, putetxea falta zutelako kabroiok, horrexegatik kendu zuten. Edo horrexegatik batez ere.

Beraz, kanpotik etorri ei ziren Toledoren bila. Bakarrik geratu behariko zuen begi bat zuriz eta bestea beltzez estalita zituen txakurra, ermitarako bidean, izarrei zaunka, gosez hil arte. Eufemia gixajia aintzina zegoen hilda. Senarrak ematen zion bizimodua izatekotan, hobe hil. Txikitan izaten ziren istoriekin buelta hasiz gero otu izaten zaizkit halakoak. Ordukoan, berriz, hala dela eta, beti pozik.

-Cuando trabajaba conmigo en la vía, ya le veía mala persona.

Jaka geratu ei zen testigu. Inor hiltzeak izerdia ateratzen du, nekatu, bat ere nekatu ez arren gorputza. Kendu egin zuen, itxuraz, jaka. Hil orduko ala ostean, berak ere ez daki, burua galduta. Toledoren gainean esaten zituenak, beste gehienak lez, Gernikarraren tabernan entzuten zituen aitak. Ez zen batzarretarako leku makala Gernikarrarena. Mahaian baina, aitak berak konta gura izaten zituenak baino ez ziren entzuten.

-Despues de tirársela, la ha acuchillau.

## VIII

Testigu mordoa agertu zitzaion aurka iturginari. Proxeneta salatu zuten. Imelda hura erabili egiten zuela, estrupoa edo halakoren bat egiten zuela. Ez zion inork ere sinesten lauxapean plaia zegoenik eta plaia harexetan aurkitu zuenik Imelda. Kontseilari zantarra izaten da bekaizkeria, mendeku mina zelan arindu, horrexeri baino

ez beitutean, gauzak benetan zelan izan diren horren konturik egin barik. Inori kalte egiten zaiola eta, bekaizkeriak ez daki bihozperatasunik.

Gartzelan sartzen zuten bigarren herritarra izan zen Ismael, gerra ingurukoak kontutan izan barik. Toledo kanpotarra zen. Ahor izena zergatik. Lehen Ocaña izan zen. Eta beranduago, Ocaña ere badela jakin neunean, erratuta ibili nintzela urteetan, haren izena ez zela Ramon Ocaña, Ocañan egon zen Ramon baino. Ramon horrek zer egin zuen, ez dakit nik. Lapurtu edo antza. Lehen krimena Toledok hil ei zuen Imeldarena izan zen.

Eufemia, emaztea, hil ostean berarekin etxera eroan gura izan ei zuen andrazkoa txakurkumeak. Neskak ezetz eta baietz berak. Ismaelek berak jakin eragin zion, gartzelatik urtebetegarrean irteerakoan, herri guztiari. Konpondu egiten ziren bestea, Toledo hura, eta Imelda. Berari ez ei zion ardura, ze lauxapeko plaia dagoen herrian emakume bakar batek gizon bat baino gehiago izan ahal du eta. Inoiz itzuli egin behar izango zuen neskak bere herrira eta, halakorik

gertatuz gero, norik erakutsi behar zion bidea? Ezetz eta ezetz esaten zioten bai Ismaelek eta bai Imeldak.

-Le ha llamado de todo.

Igandea izan zen aitak azken erriertaren berri eman zigunean. Gau bi beranduago akatu zuen emakumea. Ismaelek, oraindiko ere, Imeldari bidea erakustearren, halako egunen baten Santa Maria kalea zulatuko duela dio. Kalte itzela egin dio gartzelak eta, orain bai, zahar ikusten dut. Herri hau aintzinako plaiaren gainean ei dago altxata eta, aintzinako lauxen azpian legez, galipotaren pean ere plaia ei dago. Tabernako leihoaz beste aldean kotxez bete da dena. Okinetako nagusia -kamioikoa- eginda dago eta ez da ur horirik lehertzen kamiorik handienak ere kalean behera etorri arren. Maguelen etxea betiko legez dago makurtuta, jausten amaitu barik. Bera dago testigu mutu.

# Lidia

*Sufro, Lidia, do medo do destino*

Ricardo Reis,

(Pessoaren heteronimoa)

Lepoa luzatu, burua jaso eta alde bietara begiratu zuen kurriloak, tik-tak, erloju orratzen antzeko mekanikotasunaz. Hegaldu egin zen, deblauki, hankak artez luzatuta, mokoan hasita gorputzean behera marrazten zuen diagonal teorikoa ardatz, paduratik hirulau metro gorago izan arte. Horizontalean hasi zen hegaz orduan, sama luzea biribilki bilduz atzerantz. Geu ginen lekutik bostehun bat metro haruntzago pausatu zen, mooka aurerantz eta gorantz, atzerantz ipurdia. Han antzarrak, itsasadarrean behera arin zetozen ur ferdeskei so, arrainen baten tamarindo iladaren oinetan itsaso handiek eta uholdeek jaurtiriko gauzakiak, plastikoak, latontzi erdi ugertuak, enbor usteldua eta, galipotez zikinduta, txirla, muskuilu, datil eta abar kontae-

zinen maskorak, harea mehearen altzo epelean.

-Beitu! -hots egin zidan umeak.

Eskuin esku altxatuaz oratuta, halako panpina antigualekoa erakutsi zidan umeak. Gizakiok zilborra ohi dugun leku horretan, bai, hutsune borobila zuen ezker hanka falta zuen panpina hark.

-Zertarako da zilo hau?

Hitzok esan batera, bularraren kontra estutu umeak eta jaitsi egin zitzaizkion betazalak panpinari, kristalezko begi azul argiak estaliz. Muineka antigualekoek negarrarena egiteko halako kutxatxo borobiltxoa izaten zutela hor, tripatxotan, apur bat sakatu bertan eta mainak egiten hasten zena bera. Harrituta begiratu ninduen.

-Zertan ez dugu falta duen hanka bilatzen?

Kendu egin zuen umeak artilazko sueterra panpinari ezartzeko soinean. Tamarindo potoloaren pean utzi zuen gero. Zoritxarrez ez genuen bigarren hanka hura aurkitu. Itsasgora ere hasi zen gu bilatzen nekatu orduko eta korrontearen goranzko indarra aprobetxatuz zetorren bateltxoa ikusi genuen, toleteraino zamatuta, arrau-



nak gobernatzan halako gizonezko tristea berruan.

-Sareak botatzea debekatuta dago! -garrasi egin nion.

-Heuk emongo dostak jaten, ekologista potozorri horrek.

-Sareak botatzen baditu, ez ote du panpinaren bigarren hanka aurkituko? halaxe galdetu zidan umeak; gero gizonezko ilun hari zuzenduz, aldarri egin zion. Nire panpinaren hanka aurkitzen baduzu ez bota gero! Leire naiz, gorde neutzako!

Tropelka altxa ziren kurriloak bateltxo urru-neko bihurduraren lepoan galdu zenean. Geltokirantz abiatu ginen, itsasadarra hondatzen ziharduen gizon hondoratuarengan gogoia nik, besartean estutua zeraman panpina elbarrituaren hanka non oteka umea, isilik biok.

Treneko leihoan zehar ikusi genuen murgilariaren sama koloretsuak ez gintuen besteetan legez poztu. Elkarri ezer esan barik etorri ginen etxeraino. Zituen panpina-jantzirik hoberenak aukeratu zizkion umeak hankamotzari. Mime-nezko seaskatxo ere berarentzat izan zen.

-Hazi egin zara eta orain Lidiak behar du zure ohea -halaxe esan zion ordurarte zumitzezko otzarantxoan izaten izan zuen muinekari eta halaxe jakin nuen, baita, errenaren izena, beronen nondik norakoa eta misterioa bada ere niretzat.

Ipuina kontatzeko eskatu zidan umeak gauean. Berarekin zuen Lidia, izarapean, begiak itxita. Zein ipuin nahi zuen galdetu eta Lidiaren gainean berba egiteko eskatu zidan. Orduantxe ekin nion Lidiari buruz asmatu zuen ipuin sortari. Gero, gauero gauero, Lidiaren sorterriak izan zitezkeen herrialde urrunetara egin izaten genuen bidaia. Gurasoak eta lagunak ere asmatu nizkion. Beti ere, hondartza edo porturen bat agertzen zen ipuin guztietan eta, beti ere, Lidiak hanka galdu eta berreskuratu egiten zuen. Ozeanoak zeharkatu genituen. Denetariko itsasuntzietan ibili ginen. Robinson Crusoe bizi den uhartean lehorreratu ginen eta Sandokanenaren alboko etxolan izan ginen sarri askotan. Tropikoetako hegaztien lumaiak ere ezagutzen ikasi bagenuen ere, egia esateko, guk dortokak eta pinginoak, fokekin batera, horiexek maite genituen bereziki, Lidiaren ustez animaliarik patsa-

datsu eta dotoreenak direlako edo. Lortu ez genuena, aldiz, Lidiaren jabearen aurpegia irudikatzea izan zen. Lidia besoetan eroan ohi zuen neskatoa nor ote zen, ezin izaten genuen asmatu. Azkenik Lidiak ez zuela inoiz ere jaberik izan erabaki genuen arte.

Ubarroiak itsasora begira egoten diren haitzera ere joaten ginen, kurriloak bezainbeste maite genituen hegaztiok. Eta albatros sekula ere ikusi gabekoei buruz hitz egin genuen. Ez genuen, ez, inoiz albatrosik ikusi, basahateak baino, behin, iparralderantz alde egiten. Lidiaren hankarekin gogoratu zen umea eta galdetu:

-Lidiak hanka galdu zuen herriadera ote doaz? Beharbada egun hartako gizonak aurkitu du hanka. Zergatik ez goaz atzera ere bertara, ea gizona ikusten dugun?

Ez dakit ze aitzaki imini nion ez joateko. Gau harexetan esan nion ez niola aurrerantzean Lidiaren gainean ipuinik kontatuko. Basahateak eta kurriloa alde egitearekin batera ezer berririk ez asmatzeko etorriak ere eurekin alde egin zidala eta. Koadernotxo polita neukan ordurako, ipuinoz beteta. Hortxe gordetzen dut, non edo

non, ordurik zabaldu eregin gabe. Lidia ere ka-  
xoiren baten datza, bertan behera lagata. Zer  
dela eta ahaztu garen guzti horrekin? Bada, ez  
gaude ahaztuta, ezta inondik ere, baina igande  
goiz hartan, egunkaria irakurtzen nagoela begi-  
tarte ilundu zitzaidaneko galdetu zidan umeak:

-Zer leidu'zu, ba? Notizi txarren bat aita?

Akordatzen zara batelean ikusi genuen gizo-  
nagaz? Ito egin da. Arrantza debekatuan dabile-  
la, ertzainak etorri, ihes egin gura arin, batela  
irauli eta uretan ito da. Ezdu igeri jakin, antza, gi-  
zajoak. Baina hau ez da errekaren mendekua  
izan, giza-basakeriak berak erditu duen beste  
zentzubakeria bat baino.

Hala da ze, ja ezin topa izango dugu inoiz Li-  
diaren bigarren hanka? galdetuz erantzun zidan.

# Sugaar

Belauntzia harro sartu zen portuan. Ura ebakitzean, ezpain pareta ematen zuen brankak sorrazten zuen uhintxoak. Atzekaldeko banderatzokan urdina zen nabarmen, kai arteko ur bareetan bezala. Masta haiek kulunkatzen, halako samurtasunez kulunkatzen ikusiz, amets egitea geneukan. Are ametsago, kaioen karrankak bezain ulergaitz egiten zitzaizkigun ahots arrotzak atrakatzeko aginduak ematen ari zirela imaginatzen genituelarik. Arrantzuntzien alboan printzesatzat har zitekeen beladun hura.

Arratsa, gorridura ezabatuxea zen artean. Ingeles dakiten neskak hurreratu dira urrineko marinela sartu diren tabernara. Begiraden bidezko jokoan, amaraun isila ehuntzen du gutziaren aintzindaria den jakingurak. Mazusta moreak dira irriak nesken ezpainetan. «Dou you...», edozer, auskalo, aitzakiaren batengatik, solasaren hasieratik arruntena. Tabernatik irtendakoan Itsasgorrietan abaildu da Eguzki Begia eta belauntziaren txopa-masaila hareatzan etzan da, al-

boka. Kale estuetan gora eta behera, isiltzen hasi diren umeen ahotsek ez dute zer ikusirik, ziur, inguratsean hedatu diren partikulatxo moreekin, arrotzen belarrietan, beharbada, kolore bereaz ere tindatzen badira ere.

Ezpainetatik haizeak eramaten dituen oskolak dira hitzak; huskeriak, fruitu goxoa diren ezpainen kanpora, jarioan.

**Ardao** gorri hotza gero eta errazago sartzen da; hitzak, gero eta totelagoak, xarmangarriagoak. Zein liluramen ote duten guregan ebakiera arrotzez taiututako berbek. Gu geu nesken alboan gaude eta guri barrea eragiten diguten berberak dira eurei Erosen ziztada sentiarazten dieten oihu eta aldarritxoak. Taberna irekiak gero eta gutxiago dira, itzalak hedatuagotuz doaz eta, horretara, gure enkontruak sarriago dira. Azkenean, denok gara zabalik geratzen den alkoholtzulo bakarrean. Dagoeneko nagiro higitzen da arratsean hareatzan etzanda izan den gila, uretan berriro. Gaueko brisarak ez daki zein aldeta-

tik jo atzeko banderatxoa. Hara eta hona darabil oihal zati xumea.

Orain arteko ardao gorriaren orde, tonikaren urdintasun herabetia ikus daiteke, limoiaz uher-tuta, baso luzengetan. Musika, gorria da. Mazus-tak ere gorriak ote dira jainkosa egipziarraren orrazkera duen neskaren ahoan? Halako adatsik, hautsaren karakoa, gurean ez dugu sarri ikusi. Jainkosa egipziarraren ezpainetan edaten du itsasotik etorria den jaunak, ile luze hauskaradu-na, horren egarriz, non eskuak eurak ere gerrian gora abiatzen diren beste iturrien bila, hatzama-rretan aho bana eta hamarrak beraien egarri bailiren. Ditiak, iturri horiek, gorago. Beherago ere bada iturririk. Egarri horrek, nonahi aurkitzen ditu iturriak.

Alkoholtzulotik irten ordukotik Thor izenda-tzea erabakita geneukan hauts koloreko ilepoak, beronen lagunek -berauek ere ezizenez bikingo-ak bataiatuak zegoenerako-, jainkosa egipzia-rrak eta gainerako ingeles hiztunek porturantz jo zuten, geuk bezala. Ez dakit nondik ateratako-ak ote ziren euren eskuetan agertu ziren botilak, gutariko ez dakit nork giriok -arrotzok- gurean

bai merkea alkohola esan zuen arte konturatu ere ez nintzen egin eta. Bai, Coca-Colak, rona, tonikak, ginebra... ez diet jaramonik egiten. Portuko Txopoetan gaugiroa dugu gure artean. Neska bakanak, porro ugari, jotako baten bat eta argia, urdinska, mendien lepoan emeki igotzen. Poema arabiarra etortzen zait gogora ilargiaren sega-antza arnaskatuz:

Narkisoz gainezka den  
zelai horretan,  
sega da ilargia,  
urrezkoa.

Betikoak esan behar, zera, kokaina-hautsa balekar goizaldeko haizeak, a ze kolokoia! Bat baino gehiago ikusiko genuke, hatzamarra jarrita ezker aldeko sudurtzuloan, eskuinaldekoan gora inguratsa baitaratzen, besteontzat ezer ere utzi gabe. Zergatik izan ote zen? Hori entzutean belauntzirantz begiratu nuen, haize freskoak ere oso kolokatzen dakiela erantzun aurretik, haiek txalupatik beladunera igotean doi doi ikustera helduz. Horiek ere koka izan beharko, dio batek;



besteak, nahikoa koka dela egipziarra, berak gustora esnifatuko liokeela beste tututik. Jainkosak ez direla humanoontzat eginak diodala eta, uretara botatzen nau ia. Ea zer daukaten beste haiek, guk geuk ere ez daukagunik. Jainkoak gu bezalakoak direla baina, urrun bizi direnez, idealizatu egiten ditugula, hara hor ama putearen putakeria, lagunok, urruntasunak eraikitzen ditu jainkoak. Filosofo! esan didanak -dale una calada a ver si se calla- ukalondokada jo eta batera, begirada luzatzen dit, zeurekin nago edo esan guran legez.

Barre-hotsen oihartzunak zetozkigun belauntzitik, hordi-kutsuz eta Erosen nagitasunak jota. Haragizko estatua hau, nerabetzaroa utzi berria, gure alboan dagoen neska, bai benetan humanook debekatuta dugun dohain gutiziatua. Egipziarraren bisaia, orrazkera karratuak mugatua, gura barik neure albokoaren indiar gangarrarekin parekatzen dut. Aldea, nabarmena da, biak, bata bestea bezain eustezinak badira ere. Jainkosei isilik irautea ei dagokiela eta, marihuana etenkada larregi egin ostean filosofotxo neu, ne-

rabeak jainkosa bilakarazi, gorde ohi duten isiltasunak bilakarazten dituela deritzot.

Okaden hotsa ez nuke errezegi nahasiko kaio-karrankekin, ziur, ezta sekula ere, bestela ez nukeen begiratu izan berriro ere portu erdian kulunkatzen zen zur zurizko printzesaren alde-rantz. Kleopatra garaituarena da egipziarraren burua, karelean behera jausten, bizkarrezurra apurtu edo lokatu zaionaren antzera, larri, botaka, Thor harrituak adatsetik eusten diola; barreren zaratak ez dira baretzen, haatik, belauntzi barruan. Alferrik galtzen zaigu garagardoa ere lata barruan. Ez duela zaporerik esan, behearen gainera bota lata, amorruz zapaldu, eta zelako mozkorra harrapatu duen estu horrek, etxerantz aldendu orduko komentatu. Maiteminduta dago laguna, gizajoa, jainkosei begiratz gero itsutu egin gaitezkeenaz ahaztuta, sarriegi begiratu diolako; niri ukalondokadak ematen dizkidan horixe, bai, begiradan isladatuta gutiziaren amurru-distira somatu diodana, berori. Jainko zein jainkosa, esan nork konpondu behar duen miseria hau, ez dagoela non mozkortu, goiz ixten dituztela, inoren etxera joaterik ez dagoen ordu

honetan; betiko erretolika dakar horrek. Yo me abro dio nerabetzaroko ezpain haragitsuak gorde dituenak, beste neskak ere behingoan gauza bera egiten hasten direla. Horiek barik ez dugu ezer ere pintatzen hemen, etxerako paper-txo pareta eta ondo lo egin, aixkiriok.

Tenteltzat jotzen dut neure burua, gau osoan nerabea markatzen eta azkenean, hara! eskutsik eta bestea bero, neure artean esaten, hauskara eta egipziarrak, karelean behera, zodiac-ean sartzten ikusten ditudan une berean. Handik apur batengarrenean, nire aurrean, aldiz, ez da neska baino pasatzen, eginda, pauso bat artez eta bi okerretara, agurtu egin gabe, karelez kanpokoduna belauntzira itzultzen den bitartean. Ez duk hire arazoa. Jainkoek ez diate humanookin berbarik egiten, ez, apaizen bidez ez bada behintzat. Popatik hartzea jaukak egipziarrak.

Poema berria idaztekoan da eguzkia, bihotzak takigrafiaz hartu beharko dituela erreskandan datozen apunte piktorikoak, odolean artxi-batu eta ametsetarako erregai gozatsu bihurtaraziz. Ez ote dut neuk ere jainkosa enera begiratu? Itsuhonek -itsutasunak, hobe esanda- ez dik

zalantzarako lekurik uzten, laguntxo, mariak itsutu hau. Ezin dut nire burua atzipetu. Ohean, neure buruaren jaun eta jabe, neu jainko bakar ahaltsua; jainkosa-lagun, eskua.

Ostiraleko gaua larunbateko goizalderarte luzatu ohi denetan, ez naiz arratsaldeak gauerako bidea erakusten duen arte jaiki izaten halakoe-tan, eta jaikitakoan porturantz jotzen dut, ea itsasoko haizeak kamustu egiten didan aitzurra-ren aho zorrotzegia. Kai zaharrear paseatzen nabilela gogoratu nintzen aurreko gaueko mogi-darekin. Belauntzia ez dago portuan.

Ostertzerantz begiratuta, han urrunean ikusi ditut belak. Ordu honetan porturantz datoz uda-tiarrak, gaua gainean, arratsaldea arrantza joko-etan eman ondoren. Gure Thor bere drakkarrean alde eginda doa naharo, hegoaldeko ur beroetan utzita jainkosa egipziarra.

Neure ametsetako nerabearekin ere gogora-tu nintzen, azpikontzienteko jarioari jarraiki. Or-duantxe ohartu nintzen gazte harekin ezer egite-rik ez neukana, ezta inondik ere. Garagardotara-ko ordua ere heldua zela erabaki nuen, porrota-ren zaporea beste edaberen baten bidez gozo-

tzea erabaki ere. Ez nituen aurreko gaueko neska poliglota kalean ikusi. Berdin zidan; ez hain berdin, beharbada, ukalondokoak jotzen izan dizkidan adiskideari.

Elurak estaltzen zuen, aspaldiko partez, portu aldean negutea egiten zetzan untzidi lehorrerata, printzesa egipziarra berriro ikusi nueneko garaian. Kalean, beroki zabala aldean, ez zitzaion lar nabaritzen baina, tabernako bankuan jezartzeko erantzi zuenean, garbi agertu zitzaidan sabelalde handitua.

Jota dagoela diost ukalondokadak ematen izan zizkidanak, berak egin ei du berba printzesaren lagunekin eta, halako sugeaz berba egiten duela, inork ere ulertzen ez diola zer esan nahi duen printzesak.

Sugea gorputz biluzia inguratzen; sugea hankartean irristatzen; sugea barruan sartzen. Sugea besterik ez. Ez aurpegirik, ez besorik, ez bilorik; suge hutsa narraz larruazalean gora eta behera. Hara gogoan ei duen bakarra. Guzti hau azaltzen didalarik, etsipena nabaritzen diot, min

etsiak jota ateratzen zaizkio hitzak adiskide maiteminduari. Zertan maitemintzen ote dira ezinezkoekin? Nerabea herrian zegoen atzera ere, gabonak bertan emateko edo, eta ez nion jaramonik egin.

Udako nerabea beste batekin hasita zebilelarik, begien aurrean igarotzen ziren neska guztiengan ikusten nuen gutzigarri bihurtzen zituen zeozer. Adiskideak, osterak, kupelaren mozkorrak harrapatzen zituen eta speeda esnifatu nuen hiru aldiz urtebetean. Belauntziak atzera ere portuan; bat ere ez iazkoa, aitzitik. Egia esan, ez dakit zertan gogoratu behar zitzaidan niri bost axola eta bost gramola zidan kontu hura, jakin badakidan arren, esate baterako, begiak telebistan eskegita geratzen naizena, inondik inora ere ardura ez didaten istoriei jarraitzen. Jakingura hutsa ote zen orduko nirea, zalantzan nengoen zegonerako. Zena zela, hiru hilabeteko umea modako seaskatxoan eroaten ikustean printzesa hauts kolorekoa, tristura basak jo ninduen. Denok begiratzen izan dugu inoiz portu ahora, bai, zeren haiduru ez jakin arren, hasperenak tabakoari emaniko etenkaidez ezkutatzaz askotan.

Hurrengo udan eta hurrengoaren hurrengoan ere bertan izango ziren portua, arratsak, gaueko perfume estrainoak eta berbaroek erituriko inguratsa. Gizenago nire gerrialdea, garestiago gargaardoak, txanpon makina ugariago tasketan, ume gehiago eskoletara... Adiskideren batzu ere ezkontzekotan ziren. Kakazaharra.

Bodegoiko barran eutsita nengoen ni, umeak eskolan eta amak dastategian egon izaten diren bazkalondoko ordu astun horietako baten baten. Hara printzesa ere berton, gurean ezkonduak ohi duten orrazkeraz apainduta burua, zigarroari tiraka, ume koskorra baina eskolarako adin bakoa oraindio, inguruan. Umearen adats zoragarria hauts kolorekoa da, bestearena bezalatsu. Sugarean semea da, lagun minei aitortzen ei dien legez. Jaiki egiten da printzesa, umeari begira geratu naizelako jaiki ote den galdetzen diodala neure buruari, albora hurreratzen zait eta. Kafesnea eskatu ostean, beste zigarro bat aterata sua eskatzen dit, zer esan jakin barik utziz ni. Surik ez baina umea jatorra delakoan nagoela diotsot. Zuk dena dakizu, zuk -diost-, zeure aurrean igaro nintzenerako nahiko kenduta neukan moz-

korra eta. Sugea eta zeu zarete gau hartakorik oroitzapen bakarra. Beno, nik zu igaroten ikusi zintudan, nik, ez dakit besterik. Berdin dit, benetan, zuk dena dakizu, baina, entzun hau, hori deituta dago, ume hori zeozer izango da. Hitzok esan eta kafesnea hartuta, badoa mahaira. Umea aterantz doala eta, deitu egiten dio:

-Zuria, Zuria... erdu hona!

Leihoan zehar itsasoa ikustea daukat; urtaro-ko ilgora minenari dagokion bizitasunaz leher-tzen uhinak, apartsu, berunezko zerupear. Eza-baturik dira gaurkoan mugak; inguratsa, itsas-gaina, zero zelaia non hasten eta non amaitzen diren ezinezkoa da. Telebistako pantailan ulu egiten du poliziaren sirena adarrak. Itxaronaldi aspergarrian murgilduta, amestea daukagu. Suge luzea uhinetan dator, masta luzea iltzatuta lepoan; mastan, haize-oihal ezin zuriagoak. Suge guztien nagusia da; Sugaar da, sua darion suge bakarra, printzesen ametsa, jaunen aita, udaguetako kimera.



# Oraingoaz behintzat

Hotz egoten da Luziaren etxean. Aitagarreba izoztu egiten zaio egongelan, egotearen egoteaz. Hala da ze, erabaki salomondarra hartu du. Egunero egunero trenera bialtzen du gizona.

Treanean berokuntza ederra dago. Eulogiok dohainik erabiltzeko eskubidea du, jubilatua denez gero. Goizeko bederatzi t'erdietan abiatzen da Bilborantz. Heldutakoan, hamaiketan ia, Arenaleraino hurreratzen da. Usoen berri hartu eta Atxurira bihurtzen da. Trena, bazkaria herrian eta arratsaldez berriro Bilbora. Iluntzeko trena hartu, itzuli, afaldu eta ohera. Biharamunearte.

Urtaroen berri zehatza izaten du Eulogiok, hala leihoaz beste aldera begiratzuz, nola bagoi barrukoa behatuz. Astelehenetan azoka eta zeia izaten direla Gernikan, nekez lortu ahal izaten du jezarlekurik. Gauza bera ostiral arratsetan etxeranzkoan. Estudiante tunante mordoa etorten da. Ordulaurden bat lehentxoago geltokian ego-

tea komeni da. Azeria da Eulogio leku libreak hartzen.

Noizik behin, erriertaren bat ere izaten da. Andrazkoenak eurak txarrenak. Boltsa eta zorroz beteta etorri, lagunari eskatu lekua gordetzeko, besteren bat ibili adiago eta, azkenean ere, ukabilkadaka andrak euren artean. Ez da Eulogioren arazoa.

Kurriloen etortzeaz jabetzen da urrian, azaroran mirotzaren maniobrekin mirestuta dabil eta abenduak ezinbesteko igurtzi beroa egiten dio bihotzean. Gabonak laster. Tira, zer edo zer diferentea jateko sasoia. Sukaldari ona da erreina, zorioneko Luzia, seme bakarra kendu zion emakume ebakitsua. Ez du enbarazorik gura izaten etxean, butanoa garesti dabil, sala hori berotuko duenik ez dago, Gobernuak ondo egiten duen bakarra, haizea hartzea komeni zaizu, jendea ezagutzen da trenean... zoaz bestela karakoletan.

Gabonetan ikaragarri ugaltzen da trenetako bezeria. Ordu erdi lehenago etorrita ere, betikoak eta bost asmatu behar izaten du lekuren bat

hartzeko. Azken egunotan, gainera, gogorrera etorri dira gauzak.

Iluntzeko trena hartzeko dela, nasa beteta egon da. Inkisizinoa egon da han, euren sasoiari esaten zen moduan esanda. Trena ere beteta etorri da. Kanpoko atso-agure guztiek jesarleku-  
ren bat hartu gura eta barrukooi irteten ere utzi ez. Zarataka, ostikadaka, negarrez ere batzu, Eusko Trenbideak-eko langileak esku hartu behar izan dute arazoa konpontzeko. Eta loteri eguna etorri barik oraindiko. Atxuriko geltokian guztiaren buru dagoena emakumezkoa da. Eulogiok ez du begi onez ikusten. Andrak! Nora ailegako ote gara ba. Orri guztiak horbel erreka alboetan ere.

Errekadua agindu dio goizean Luziak aitagi-  
narrebari. Hiru umeak, eskola barik dagoz, baka-  
zinoetan, eta zelan goberna ez dakiela dabil. Eu-  
logiori errekadurik agindutea ere bada, baina,  
ezdu beste konponbiderik. Senarraren deia itxa-  
roten du, Gabonetako deituko zuela agindu zion,  
Noruega aldean ei dira. Ez du, bada, etxetik irten  
gura. Gabonak bera barik, umeekin eta aitagina-  
rrebarekin.

Eguerdirako ez da agertu Eulogio. Zer egin ote zaio ez dakiela geratu da Luzia. Kazularatxoa laban sartu du, beranduago etorriko delakoan agurea. Gordoaren berri eman du telediarioak eta umeak kalera bota ditu Luziak. Eta deitu ere ez senarrak. Eguraldiarekiko berriei adi dago. Iluntze gorria ekarri du, hotz eta biluzia. Umeak itzulita dagoz, senarrak ez du deitu, amak ezta dinero atras ere ez esateko deitu dio eta Eulogio hori itzuli barik.

Gaueko bederatzietan, telediario osteko parteari adi dagoela telefonoaren hots eskandalugarria izan da.

Bai? Bai, hemen da, bai. Eulogio Erkoreka, bai, neure aitagarreba. Ene bada!

Aparailua eskegi eta umeak ohean sartu ditu. Gaurkoan amama etorriko zaizue jagoten. Ni neu aitarekin berba egitera joango naiz, bai laztana, laster itzuliko naiz.

Haren zenbakia markatu du. Ama. Berandu da, badakit. Umeak jagoten etorri behar duzu. Aitagarreba. Trenbidera jausi dela. Zelan izan den? Ez dakit. Baten batek sakatua edo. Ez, gurata ez, gura barik. Halaxe esan didate treneko-

ek. Ospitalean dagoela esan didate, besterik ez. Bizirik? Ez dakit nik, batek daki. Ez dut uste trenbidetik bizirik irtengo zenik, ezta? Zatoz arin. Eta neure gizonaren deiaren begira egon naizela egun guztian.

Eulogioren gorputza zati bi eginda dago izarapean. Aurpegian ez du ezer ageri, Herioren esku hotzaren laztana baino. Bestela, betiko Eulogio. Malkoren bat gura izan zukeen Luziak forensearen aurrean. Ez zaio irten. Senarraren deia etorri zaio burura. Ez du inoiz aitagarreba maite izan. Bera ez da erruduna sala hotzegia bada etxekoa. Okerrena, gabonetan izan dela. Zigarroari su eman, irtendakoan egin duen lehenena.

Etixerakoan, autopistako argiek zeozeren berri sinbolikoa eman gura izan diotela begitandu zaio. Senarra? Umeen aita. Maite ote duen? Zer da inor maite izatea? Kanpoko hotza lausoa da auto barruan. Noruegatik deitzea ez da hain erraza izan behar. Hobe deitzen ez badu. Oraingoz behintzat.

# Yeregi

Yeregi makinatxoak ikaragarriak dira. Eurak dira guda aurrean etorri ziren lehenetarikoak eta oraindiokarren bizirik dagoz hemengo enbarkazio batzutan, atzokoan legez gauregun ere, inongo matxurarik ez, arrantzan hurrera joaten direnen zurezko saihetsetan, zuakerretan, ondo sendo iltzatuta eta helizeari astiro baina pausaldirik barik eragiten. Txikiak eta teknologia soilaz egindakoak dira. Burdinezko nanotxoak. Metalezko gorputz txiki horren barruan galdara sendoak irakitzen du, horregatio.

Makinatxo sorginduon lehen berria izan nuen okerreko izena eman zidan A.k. Yeregi esan beharrean Jauregi bota bait zuen, sarritan izaten den errealitate egokitzeak aginduta edo, erabileraren erabileraz logikoago erizten ziolako bigarrenari lehenari baino, hurrean. Gizaldiko lehen baporak, lurrun-untziak, ezagutu eta eurtan lan eginda dagoen Felixek argitu zidan benetakoa izena, A eta bion arteko adiskidetasuna hautsita zegoelarik ja. Yeregi, Yeregi, txarto

aditu niolakoan behin eta berriro izena errepikatzeke eskatuta, Yeregi, Yeregi, zioetan agureak. Egia, gure «froga» egiteko erabili izan genuen makinak izena erdi ezabatuta zuenez, Jauregi irakurri uste izan genuen karkasa herdoilduaren gainazalean ere. Dena dela, izenak ez zigun ardura.

Ardura ziguna makinatxo bera zen. A.k lantzean berbaleku berri bat idoro izaten bazuen ere, sarri etorten ginen betiko harira, hau da, guda aurrean makina berriak zelan sartu ziren, belauntzien galera arina eta hamabiko galarrenak guzti horretan izan zuen eragina. Itsasmuga-ko marra azulerantz begira, haizeoihalak ikustea amesten zuen A.k gaiari ekiten genion guztietan. Eta bere baitan isil-isilean berreraikitzen ziharduena historia xumean leku berezia betetzen zuen Jauregi izenak, Yeregi oker esanda, hain zuzen.

Historia bere baitan behin eta berriro bizi ezezik errealitatean ere bergauzatu gura izaten zuen. Halaxe sartu zitzaion buruan batel zantar hari bela ezartzea. Beraz, Bermeon geratzen den bela-jostun bakarrenetara jo nuen, berak agin-

duta. Yeregi makinatxoaren «froga» egin aurreko azken mentura izan zen. Jostuna ezagutzea, hara menturari atera nion etekin bakarra.

Bela-jostunaren denda txikia da. Apaiuak, itsasorako jantziak -jakanarroak eta-, pintura poteak, oroigarriak, apur bat denetarikoa saltzen du agureak, izatez honetan azken artisaua den zahar bapatean gaztetuak, ze, Halako belie egin gu'dot esan eta urteak galdu zituen behingoan. Nongoa zara eta Halakorik ja ez da egiten, zerk emon deutsue halakorik egiteko, josi egin zidan galderen galderez. Egun batzu beranduago, hartu dendatik haizeoihala eta batelari ezarri genion. Huts egin zuen gure frogak. Guk biok, hermeretzigarren gizaldiko arrantzaleak legez nabigatu gura izan genuenok, sei ordu eman genituen portuko bokalean, bela gora eta bela behe-ra, lekutik aldatu barik, zebilen haizerreak oiha-lezko sabelalde zuri hura ernaldtu eta hats bizigarritz puztea lortu ezinik.

Txarto diseinatu joat belia, bigarren ordua betetakoan bota zidan. Karramarro deritzen horietakoa zen, hots, halako trapezoidea masta bakarrean eskegita, muturretariko batetik lemari



zuzenean estekatuta. Haize unada bakoitza neurtu izan zuten gure zentzumen guztiek.

Karramarroaren sabelalde zuria ez zen gano-raz puztu horregatio. Itsas-korrontearen tirainak barrako haitzetara eraman behar gintuela eta, arraunen laguntza behar izan genuen.

Han, gure karramarro alonazko haren porrota ausnartu barik oraindio, halako motortxiki baten alboan pasatzean, ahor Jauregi makina-txoa dakon motor bat, diost eta, nik, tentela ha-lakoa, guda aurreko sasoiekiko mina igarri uste izan nion begi-distiretan berari.

Uda amaitu baino lehen salduta genituen ka-rramarro-bela ernaldu bakoa eta batela bera ere. Araba aldeko urtegiren baterako erosi ei zi-guten eta, harrez gero, aipatu ere ez genuen egi-ten gure artean. Pago eta haritz artean nabiga-tzen duen beladunak hildakoak euren deskan-tsutik altzarazi egin behar dituela eman zigun, bioi, mutuan. Barru barruan dakigun egia da. Eta gu geu ere pekatariak gara, krimen izugarri ho-rrren errudunak, hain zuzen.

Abenduko arrasti goizegi erreetan oskorriak ekarri zituen neguak, udakoak baino minberagoak ziren suak pizten bait ziren zeru-sabaiko urruneko oinetan, galdara ezkutuetan, hala da ze, Gabonetan kalean mangutsik ibili ginen ordukoan. Portuko terrazetan udan legez egoten zen, bare eta ekuru inguratsa eta itsasoa, lasai eta ardaoaz garbi norberaren barrua. Ez dakit ziur eguna, ez daukat akorduan baina, abenduko halakoren batean izan zen, Santa Zezilia egunean beharbada, nork daki, ze egun horretan txistulariak nahiz beste edozein musika tresna jotzen dakitenak kalerik kale ibilten dira eta. Hala bada, Santa Zezilia egunean izan bide zen, ia ziur. Gu biok terrazako horman gagoz jezarrita halako txaranga antzekoa datorrenean. Guk, ez eta begiratu ere. Folk antzua.

Tabernako pianotik lehen notak belarrira heldu eta tango kutsua igarri nien eurei. Zeru-mugako galdaretan egur berriak erretzen ziren, azkenak, gaua abaildu ordukoak. Hara non, pianoari akordeoia gehitzen zaio bapatean, eta akordeoikoak pianoaren noten gainean eroso zamalkatzen hasi direneko, ahotsa.

Percanta que me amuraste / en lo mejor de mi vida, / dejándome el alma herida / y espinas en el corazón, Marianne Faithfulena ematen duen ahotsa da, tangoa kantatzen baina. A.k eta biok elkarri begiratu eta galdera berbera egin genuen, nor ote da? Y la lámpara del cuarto -beste bana eskatuko joat- también tu ausencia ha sentido -beitueik nor dan ahotsaren jabea- porque su luz noha querido / mi noche triste alumbrar. Txalo hotsa, bibak eta braboak taberna barruan tangoa amaitu deneko eta A ez dela ageri. Neskaren begiei begira geratu zen, garga-gardo biak eskuetan, zuntzunduta.

Kitarraren lehen notak labaina arrainaren kokotsean legez sartu ziren aborrotsaren muinean, apurka apurka zabaltzeko isilutasunarentzako lekua. Azken zaratak arrain erraiak uretan jaus-tea izan zen. Ahotsa kaio bihurturik, azken hots-apurren bila etorri zen, portuko itsastxoriak hondakin odoltsuaren bila etorten diren modura. «I'll Be You Baby Tonight» Bob Dylaren kantuaren bertsioari ekin zion. Adin batekoak gaituk, kanta horrek ederto erakusten jok. Une honetan erabatekoa zen isiltasuna.

Neu ere taberna barruan sartu nintzen. Bihoztzak ahorainoko bidea egin zidan. Ile luzea, txirikiloduna, leporaino jausten, ezkerreko txorkatila eskuin belaunaren gainean eta kitarra hortxe eratu den altzo miragarrian, han dago ahotsaren jabea, Marianne berria, A eta bion arteko adiskidetasun katea, burdinezkotzat genuena, koipea zartaginean bezain erraz urtuko zuena.

Ahaleginak egin genituen biok, neskaren izena jakin eta berarekin harremanetan sartzearren. Lortu genuen, lortu ere. Erdi parienteak ez gara ba, halaxe esan nion lehenengoz berba egin genuenean. Gabon Zahar bezperan izan zen, Pedro lehengusu madarikatuari esker. Neska hori, lehengoan zuekaz egon zana, nor da?, halako txikiteo bateko beranduko orduko berriketa gonorabakoa aprobetxatuz galdetuta. Lehengusinea dok hori, Ameriketakoa. Hara! Hortxe jagok. A, Bea, deitu zion. Beitu, beste lehengusu bat, edo erdi lehengusua behintzat. Ordukoan bihotza ahora etorri ezezik jausi ere egin zitzaidan, behearen gaineraino. Neskaren begiradak gaseosa

bihurtarazi zidan odola eta luzatu zidan eskuak min eman zidan eskuturretatik garondoraino hedatzen den zain-sarean.

A ere han zebilen. Hau A da. Euskeraz daki ala? Pampako eskuerea dakit. Ene! Pedrok argitu zuen dena. Honen aita gure tio dok, Ameriketakoa. Ba, halan bada, ni neu zure lehengusua naz, esan nion.

Gabon Zahar bezperako eguerdiko txikiteo haretan txandakatu egin ginen A eta biok Bea haren belarriak berba leunez eta zeharkako maitasun-aitorpenez laztantzen. Barre eta barre egin zigun. Están ustedes locos los dos. Ez, hala-korik euskaraz ez zekien esaten. Eta ez bide daki. Oraintsu ikasi ez badu, behinik behin. Aitzitik, ez dakit nik noiz uzten gintuen maitemindua-go, erdaraz ala euskaraz egiten zuenean.

Bihar gure afarira etorriko zara, ezta? Ze afari, begi keinuez galdetu nion A.ri. Modu berean erantzun zidan A.k, Tentela haiz ala, orain-txe atonduko joagu afaria eta hago isilik, mozolo hori. Ezin dot, tiarekin afaldu beharko dot. Ba, afari ostera. Afari ostera bai. Kitarra ekarri, gero.

Azkena? Azkena! Gora Pampako euskaldunak!  
guk. Gora Euskal Herriko euskaldunak!, berak.

Argitasun gehiago ere eman zigun Pedrok Gabon Zaharreko afaria baino lehen. Beitu hau kaseta, diosku arratsaldeko txikiteoan. Tangos, Maite Amor. Argazia zekarren kasetak. Bera da, Bea. Benetako izena ez dok Beatriz ala? Hau, Maite Amor, artistikoa dok. Entzun gura'zue ala? Bihar gauerako, itxi ba, sorpresa edarra emongo deutseagu bihar. Sorpresa eman, berak eman zigun geuri. Yeregi makinatxoak aipatu zizkigun.

Gabon Zaharreko afaria Txusen etxean egin genuen A.k eta biok, lagunartekoan ezkondata segitzen zuen bakarraren etxean, hain zuzen. Guk biok apuntatu, afalosteko bisitagatik apuntatu ginen, azken orduan. Edariak txolindutako neska hobeto gureganatuko genuelakoan, polito bete genuen gabon-mahaia denetariko botilez badaezpada ere, ez bait genekien neskaren zaletasunen berri. Txusen eritzien aurka, Maite Amor haren tango-kasetak ipini genuen gauerdiko aborrotsak Urte Berria iragarri zueneko. Tangoak entzuten gagozela agertu zen Bea edo Amor hura. Hemen nago, irribarre lehertarazleaz esan zuen.

Txus bera ere txundituta geratu zen. Ez zuen tangoen aurka ezer esan jagoiti.

Urte Berriari lehen agurra egiteko modu egokiena neskaren kitarra eta ahotsa entzutea zela konbentziduta A eta biok, behingoan onartu genuen Txusen gonbitea, Etxean geratu gura badozue, geratu, halan umea zeuekaz itxiko joagu. Nigatik ez jagok arazorik, nik; nigatik ezta, A.k; eta orduan artean ere Maite Amor tango kantaria zen neskak ere ez zuen aurkakorik esan. Bos-pasei geratu ginen, alkoholak borrata ordurako baten batzu eta neskarenganako liluraz besteok. A.k, ordurartekoan neska kontuetan sekula santan ez ibilia ez arduratua, egundoko begiradak luzatzen zizkion neskari. Nik neuk, sarri betetzen nituen guztien basoak. Argentinarrak tekilaren teknika ederto ezagutzen zuela eta, aposturako enbidoa luzatu zuen. Ordura arte ekin nion zereginari. Guk apustua onartu eta aurrerantzean bera arduratuko zen gu denok kupela baino mozkorrago uzten. Limoia, gatza eta tekila edateko basotxoak eskatu zituen.

Berak jo zuen lehen dzangada. Gatza beso ukabildua burutzen duten erpurua eta erakus-

learen artean eratzten den sakonera hustu, teki-  
la basokadatxoa den batera dzanga sartu eta,  
ostean, limoiaz ondo igurtzi haginak eta ahoa.

Horretan ginela denok, negar egin zuen Txu-  
sen umeak. Gelara joan zen neska, Zuen txanda  
da, zioskularik.

Itzulitakoan, Zelan joan zen Ameriketara  
zuen aita? Aitorrek galdetu zion guztion buruan  
zebilena. Neuri zegokidan tekila edatea. Neskak  
Barkuan erantzuten duela entzun eta komunera  
joan nintzen. Bota egin nuen tekila. Hi, tontolapi-  
ko hori, nork aguantaten dauan egunak argitze-  
raino, neska eroango jok horrek, izpiluan islada-  
tuta nuen nire kopia lauari esan nion, aurpegia  
urez igurtzera makurtzen nintzela. Eta neskaren  
errelatoa entzuteko eta gehiagorako ere gertu  
ikusi nuen nire burua. Neuk hartuko nuen gaue-  
ko itsasuntzi errakorraren lema eskuetan. Nes-  
karik ikutu ez eta alkohola sarriegi laztantzen  
zuen A.k ez zidan oztoporik egingo, halaxe agin-  
du nion izpilukoari.

Egongelan sartu eta neska zegoen berbetan.  
Besteak jezarrita barik etzunda zeuden, norbe-  
rak ahal zuen eran guztiak. Guztiok narrazioari



adi egon arren, askoz ere adiago neskaren bularraldeari, ezpainetako haragi goxoei, hagin-lerro ezin hobeto doituari, darion sorgintasunari. Mes-tizaiaren xarma hordigarria da.

Mila bederatzirehun ta hogeita ez dakit zen-bateko apirilean Francoren tropak herri honetan sartzeko dira, kontaktzen hasten da neska. Hala bada, hogeitazazpian, ezta?, Aitorrek. Nik baietz, hogeita hamazazpian. Hogeitamazazpian, Aito-rrek, zer dira hamar urte. Hago isilik gangar hori, utziok kontaktzen, A.k.

Gure aita mutil gaztea da. Ez gureakaz fren-tera joateko edadean dagoana baina, faxistek gazteagoak be frentera eroaten dakizela dinoe, hala da ze, alde egitea erabakiten dabe. Zelan baina?

Itsasoz! Aldarri egin zuen A.k, hura bait zen bere historia berreraikiaren gaineko hipotesiak frogatzeko abadagunea. Itsasoz, bai, diotso nes-kak. Apirilaren hamazortzian enbarkatu ziren, bertoko portuan, gure aita, Paulo izeneko beste gazte bat eta, azkenik, izena ahaztuta dakodan hirugarren bat. Gaueko orduak dira. Zorionez, bare dago itsasoa eta bare gaua bera ere. Enbar-

kazioa biberez eta gasoilez ondo beteta, han doaz, inori ezer be esan barik, beste alderantz, kostaz kosta. Eguna argitu orduko Donostia igarota dagoz. Eguerdirako, Donibane Lohitzunera jotzen dabe. Salbata dagoz. Halaxe kontatzen izan deusku beti aitak.

Txaloak! Aitor zeharo eginda tekilaren pasinoarekin txalo eta aldarrika hasi da. Zoro hori, umea itzartu behar dok! Ezinezkoa da hori neska. Neska isilik geratu zen.

Ez dok ezinezkoa, errelatoak berotuta dio A.k. Makina bakar batek egin eikean hori, bakar batek, madarikatu hori.

Halaxe da, dio neskak, Yeregi makinak. Gure aitak beti ahoan erabilten dauan berba da Yeregi hori. Yeregi makinari esker salbatu ginan gu, harek izan ziran makinak, halaxe esaten hasten jaku sarritan zaharra.

Yeregiiiiii! irrintzi luze bihurtu zitzaion garai-pen aldarria A.ri, beste tekila bat dzanga edan eta lo seko geratu aurretik. Aitorrek alde gin zuen, besteak ere dandarrez kalera eroatearren. Txusen umetxoaren lo-zurrunga lasaiak aditu ganituen. Beak kitarrari heldu zion, maitasunez.

Ahots leunaz kantuari ekin aurretik esan zizkidan azken berbak gogoratzen zaizkit, Hau gure zaharri entzundakoa eta, zeuretzat. «Ameriketara joan nintzan...», kantuari ekin zion, eta, ni, hurrez gero, belarrietarako estalkirik barik dagoen Ulise galdua naiz.

Urteberri egunaren biharamunean alde egin zuen neskak ustebakoan, Argentinatik dei larriren bat hartuta antza. Eskribiduko deusuet, bioi. Ez zion besterik esateko astirik utzi presak. Geuk ere egingo deusugu karta bat edo beste. Gure artean dagoelakoan, alde eginda dagoela konturatzeari izan zen A.rentzat, urteko lehen eguna lotan eman bait zuen. Ni neu itsasoko uretan sartu nintzen, urtarrileko hotzak zainetan zebilkidan zezenari odola jelatuko ziolako esperantzaz. Eskerrak gure ametsak genituena. Areago, eskerrek gure betiko ametsak akuilatzen zituen harra hazteko gai berria utzita joan zitzaiguna Beatriz Ormaetxea Canilla, Maite Amor tango kantari ezaguna, bihotzean sistole eta diastoleak gerra

zafarrantxoetan baino nahastuago uzten zituen mestiza hordigarria.

Hordituta ibili ginen urtarrileko lehen astean, Errege egunerarte gutxienez. Mundua bere ardatzaren senera etorri zeneko aldiz, Yeregi makinatxoenganako grina harra piztu zitzaigun, burdinezko nanotxo harietako bat lortu behar genuela eta Ameriketara ihes egin zuten haien beraien mentura geuk frogatu.

Gure historia-berreginen zerrenda etorri zitzaidan akordura: irlako fraidearen igeriketa, bertoko neskaren baten bila etorten ei zenekoa-rena, geuk egitea, korronteen azterketa sakon eta ganorazkoa egin ostean eta legendaren arabera; hamabiko galarrenak eraman zituenen zerrenda eskuratzea, mapak burutzea, txostena eta zinerako gidoia, tiradoren baten lo datzana, idaztea; inguru honetan izandako hondoraketa guztien zerrenda egin gura izatea eta, batik bat, dinamitaz kargatuta portu aurrean geratu zen «Estrella» izeneko hura zela eta herria ebakuatu behar izan zutenekoa; gerra sasoian Frantzi aldera eroan zituzten umeen bizimoduaren azterketa; nekagarri egiten zait guzti hau burura

ekarte hutsa orain. Ordukoan, A.ren indar magnetikoaren eraginpean bizi nintzen, aitzitik.

Indar horren eraginpean arduratu nintzen gure txangoa onez burutzeko behar zen guztia atontzen. Arrantzale museoko egoiliar bihurtu nintzen ia. Zaharrekin berbetan ematen nituen orduak eta egunak, kostaldeko korronte, haize, eguraldi aldaketa eta halakoen gorabeheretan, guda aurreko sasoietan egiten zen nabigazio moduaz jakin guran. Bela-jostunaren dendatxora ere hurreratzen nintzen noiz edo noiz, berak esaten zidan moduan. Noiz edo noiz.

Yeregi makinatxoren bat eskuratzen arduratu zen A. Lortu zuenean, martxoan ondo sartuta ja urtea, umetuta, munduko gizon umetu zoriontsuena izan zen. Ni ostera, lur jota nengoen. Bearen lehen eskutitza orduantxe ailegatu zitzaidan. Ez nion ezer ere esan A.ri. Berak ere ez zidan esan eskutizik ailegatzen zitzaion ala zer. Yeregi gure laztana gertatzeari ekin genion.

Emeak kumea zaintzeko hartu izaten duen ardura izan zen A.k makinatxoarekiko hartu zuena. Kanpoaldea ugertuta dauka gure nano-txoak, hala da ze, pieza guztiak banan banan

desmihiztatu, gasoiletansartu, luzaroan utzi makailoa legez beratuten, gero, banan banan berriro, ondo sikatzeko eta apurreria guztiak kentzeko eta hobeto sikatzeko, Beituik torloju honen sendotasuna edo Pistoik honek berrogeitaz urte jauzkazak, txo, Hau duk indarra honek izan behar dauana, kaguen zotz. Buruz ikasi genuen nanotxoaren gorputza, errefrigerazio sistema, olioztatze bidea, elektrizitatearen ibilbide laburra, hots, gure umore, odol eta jariokin guztiak lakoak izan eta soin mekaniko haren barruan doitasun miragarriaz besteek gure baitan betetzen duten zeregin beretsua betetzen dutenak.

Beste osagarri bi falta genituen, horregatio. Untzia betetik eta, bestetik, helizea eta beroni eragiteko ardatza.

Untzia lortu genuen, guda aurrekoa berau ere, luzenga, estua, txopa borobila eta branka ia arteza dituzten horietakoa, arraunetan egiteko lau tolete alboetan, beste bat atzean, lema karelez kanpoko burdintxoez eutsita eta haize oihale-tarako masta-zulo bi, aurrean eta atzean bana. Museoko pieza, dudarik ez, Aintzina hemengo basoak haretza eta gaztainondoa izaten ziren

eta, halaxe esaten zidan A.k beti. Ez zen egia osoa baina, zer horrek guri? Halaxe imaginatzen genuen guk mundua, eta kito.

Kanpoaldeko pintura erre eta arraskatu, istupa sartu zirrikitueta, bikeztatzea, blakak ematea, izena eta goikaldeko koloreak eztabaidatu bitartean bete genituen zereginak dira. Beatriz, Maite Amor, Maite besterik gabe, ezin jakin zein izen datorkion egokien. Dakigun bakarra, neskarakin zerikusirik duen izenen bat ipini behar diogula enbarkazioari. Amore eman nuen horretan, berak kolorearen gorabeheran ere nire eritzia nagusitzearen truke. «Maitena» bataiatu genuen goikaldea gorriz pintatu genion hura, ze, A.k beti esaten zidan, Gerra aurrean ez dok halako sintetikorik egon eta, txo, emoitsagu blaka hor be, ze osti. Hala eta guztiz ere, gorriarekin tematu nintzen ni. Portuko parrokianoek ondo eritzi zioten. Gerraurrekoak lakua dok hori, txo, hori gorridxe kendu ezketero. Eutikioren berbok poztasunez bete zuten A. Parrokianoak eta gu biok, neguko egun laburretan, zereginik barik, herri hondamenaren lekukoak gara. Zorotzat hartzen gintuzten, gure alferreko zereginagatik. Ageriko sendi-

mendu horren azpitik, Zuek ez zagoze ondo, orain dagozan enbarkazinoakaz, sakoneko beste batek, indartsuagoak, publiko zabala erakarri izaten zuen gure lantokira eguerdiro, txikiteoan hasi aurreko tarteetan. Iragan-mina pizten zitzaien gure behin-behineko ikusleei gure Maite-na haren edertasun jada zaharkituaren eraginez.

Helizea ezartea azkenerako utzi genuen zeregina izan zen. Nano indartsua erraldoi bihurtuko zuen eskua zen, hiru hatzamar zorrotz eta borobilduez osatua. Ardatza, beso luze, artez eta nekaezina izango zen, Yeregi haren barruko su kontrolatua indar borobila bilakarazten. Errepublikaren egunean sortarazi zuen lehen bitsa portuko ur bareetan. Lau egun baino ez eta gure gaua etorriko zen. Beari idatzi nion. Zure aita eta beste bien menturarako prest gagoz; ezin onartu dut zure proposamena eta, mesedez, sinestu, maitasunak ez dauko honegaz zerikusirik.

Berak dakien eguraldi aldaketa ekarri zuen azken egun haietan. A.k datu hura falta genuela sartu zitzaion buruan. Ez jakiagu ze eguraldi izan zen orduakoan. Hemerrotekara jotzeko astirik ez eta, «funtsezko» datu hori barik abiatu beharko



ginen. Erresaka itzela izan genuen bezpera eguneraino. Biberak erosi, azken kalkuloak burutu, Maitena ordu luzeetan portuan arrankata euki-hori dok petrolidxoare gurea txo, esaten ziguten zaharrek-, kostaldeko mapak behin eta berriro begiratu, astia eman gura genion denborari, eguraldia aldatu eta gure egitasmoa betetzeko beta eman zekigun.

**Ilabetea** ageri zen apirilak hemeretzi bete zitueneko gauerdian. Euri mehea ekarri zuen itsaso bapatean baretuaren azalera eta urezko mintz haretan zehar iragazten zen zohardiak portuko argiteria elektrikoa alferriko egiten zuen.

Gudan sartuta bagina bezalako arretaz burutu genituen maniobra guztiak, jakanarroetan sartuta. Bihar sartzeko dozak faxistak, emon deigun, eta baten batek ikusi egiten gaitik. Arraunez atera genuen portutik gure Maitena. Moila zaharra atzean utzi genueneko, hantxe ageri ziztaigun ilargi-islada uretan, asturuetako untziren batek utzitako zilarrezko uhara bailitzan, izarnia-

kor. Barra gainditutakoan abiarazi genuen gure Yeregi zorionekoa. Behingoan erantzun zigun nantxoak. Pal-palean jarri eta han joan ginen, argirik piztu barik. Hori, horko alde hori, Gipuzkoako faxisten eskuetan jagok eta, argirik ikusi ezkerro galduta gagozak.

Iparmendebalak jotzen zuen. Hala bada, hai-zeoihalik zabaldu barik egin genuen aurrera. Makinatxoaren aborrotsak, musika ematen zigun. Isilune luzeak zabaltzen genituen, birginalak, Yeregiren ahots mekanikoa mintza zedin. Uda sasoirako lanpostuak atera dozak aiuntamentuak. Barrandero ibilteko? Kakazaharra, erantzun nion. Gustora joango nintzatekek hemendik. Nora? Ez jakiak, edonora. Isildu egin nintzen. Argentinara? neure artean galdetu nuen.

Oesterantz zabaldu behar gaituk, hor faxistak jagozak ja. Yeregik eztul egin zuen, hau da, birikietan zerbaitekin eztropozo egin eta une batez arnasa falta balu bezala isildu zen, barrurantz galtzen zitzaion kexa ikaragarrian. Zenbat mila egin ote doguz ja. Hamabi bat, ze ordu pareta emon joagu, sei nudotik gora ez jok egiten

eta honek. Hala da, ze, Lekeitio parean gagozak. Bai. Ez gaitez zabaldu badaezpada.

Yeregik eztul egin eta gogorrago jotzen hasi zen haizea. Eztulak uzker bihurtu ziren azkene-rako. Euri mehea zaparrada zen, ilargia hodei atzean ezkutata zebilen eta ama minberatua zen urazal gero eta haserreagoa, malko jasa hura es-kuzabalik hartzen. Olatu luze eta zabal barekoak eratzen zituen haizeak. Azken eztula, azken uz-karra, ahor Yeregi gurea isilik.

Altxaik belie, agindu zidan A.k. Txopakoa za-baldu nuen, bere makinatxoa gainbegiratzen ziharduela. Ura sartu jakuk gasolioan, ama pu-tearen euria. Ura sartu, ababorretik etorri zitzai-gun olatuak sartu zigun enbarkazio barrura. Erdu hona, txo, itxik hori, hik erramuak hartu eta nik lema zuzenduko joat, ze bestela galduta gago-zak, popadan hartu behar joaguz olatuak.

A arraun biei eragiten, ahal zuen eran, ni lema eta bela batera goberna guran, lehorre-rantz begira ipini nuen branka. Txantxetan ibili beharrean hobe genukeela salbazioak aldean ipintzea, badaezpada ere, hango argiak Lekeitio-ko portukoak izan behar direla, kaguen zotz,

baietz. Lekeitio, ba haruntzago jo beharko joagu, plaiarantz.

Alferrik zen arraunekin saiatzea. Ozta ozta lortzen nuen lemaren bidez zuzentzea haizeak okertzen zuena. Erramuak lagata esan zidan A.k, Danok ala inor ez, biok ala inor ez, soka luzeena hartzen zuela. Elkarri amarrata joango gaituk, bale? Bale. Bere salbabiziko eraztunetariko batean jostarratzean haria legez sartu soka eta nire eraztunaren bila hasi zen. Soka den luzea itxiko joagu, mutur biak lotu eta, halan, ez joagu batek bestea arrastako baina bai laguntzeko erea emongo. Aurkitu zuen eraztuna. Beso biak ene gerrialdean bildu zituen, soka atontzeko. Eta halako batean, estuagoa egin besarkada eta belarrira diost. Heu gura haut, heu; beharbada gure azkenera heldu gaituk eta, ez nauk egiaren bildur, hireak edo nireak egiten badau be, ezin nauk pisu honegaz ez geratu ez joan.

Ezpainetan musukatu ninduen. Beraren bihotz taupadak nire bularraldean nabaritu nituen. Zapore mingotsa zerion, malkoena agian, ze aldaraztea lortu nuenean begiak bustita ikusi nizkion, ez euriak bustita, jakanarroko kapelak

ondo babesten zuen eta, negarrak bustita baino. Bihozperatuta beharbada, minberaratuta ere ziur, orratz itzelak goldatu zidan bihotza une haretan.

Lemari eutsi behar jeutseat, hi, eta heukbe egik marapilo hori. Eskerrak. Ababorretik sartu zitzaigun olatua, eta beste bat jatorkiguk handiagoa. Kanpora jakanarroak eta oinetakoak, txo, hau hondora joak eta.

Hondora joan zen Maitena gurea, Yeregi burdinezko nano ikaragarria ere bere altzo zurezkoan ondo iltzatuta.

Ekarri zuen bezala kendu zuen ekaitza, galarena edo izan zena, bat batean. Ilbehera berpiztuta ageri zen atzera ere eta haren islada zilarezkoa izan zen berriro urgaina barean. Argitasun leun eta mehe harek lehorraren taiukera erakutsi zigun, aratz. Hondartza begietsi nuen, gurenetik nahikoa hurrean. Tenk egin nion sokari. Hara hor A. Elkarrengana hurreratu ginen.

Agur gure Yeregi, nik. Agur gure Maitena, berak. Hor, ez dok faxistarik egongo, ezta? Barka eidak lehengokoa. Ez jagok zer barkatu. Igeri egin genuen, elkarren alboan, hondartzaraino.

Gurutze Gorrikoak geneuzkan itxaroten. Faxistak izanez gero, geureak egin jok.

Argirik piztu barik nabegatzearen zergatia azaldu behar izan genien -hondatu egin zaizkigu, euriarekin edo- eurek guri gure berri zelan izan zuten azaldu ez ziguten arren. Etxerako bidea auto ezberdinetan egin genuen A.k eta biok.

Ordukoan berbarik ez gure artean eta ondoko egunetan ere ozta ozta berba erdiren bat, ze laster jakinarazi zidaten udarako barrandero hartzen nindutela udaletxeko kapo berriek. Aurreko beste uda haretan legez, hondartzako zazarke-riak batzera, jeringilak eta zorrotxo profilaktikoak, ahaztuta utzitako aftersunak, jazkiren bat edo beste, itsasgorak ekarri eta beherak eroan bako gauzakiak, era guztietako hondoraketetako testigu isilak. Kaioen hanken lorratzak goizero izango ziren han, magurio, txirla eta margolen oskolen artean, urrezko hareatzako gainazalean. Bertara etorri zitzaidan A. Maitena atera gura joat hondotik. Heu hago behar barik eta, egik heuk, nik ezin joat. Lehortasunak gainez egin zidan, gura barik.

Atera zuen, atera, Maitena gurea handik hondotik. Eta berriro ekin zion makinatxo gertatzeari. Akabo niretzat ameskeria erromantikoak, zoramen hordituak, nerabeen modura mundua geure esanetara moldatu guran ibiltzea. Garbitzaile lanak eman zidan lehen alogerarekin mozkor ederra harrapatu nuen. San Fernando eguna zen, Espainaiako Infanteriaren Patroia. Bearen eskutiz berriak esaten zidana burutik kentzearen. Sanjuanetarako hor izango naiz.

San Juan gauerako gurean da Maite Amor, bai, baina ni neu beste altzo epel batera bilduta nengoen ordurako. Aurrearreta, ze tango kantaria, Marian Faithfull berria, gure Maitena, inoizko ederren etorri zen, ilea moztuta, ezpain ertzetan zimurdura berriak, sakonago betzuloak eta irtenago begiak, bihotzak zaztatzen zituelarik non-gura. Zafra ederra egin zezakeen, berak gura izanez gero.

A eta bera elkarrekin ikusten nituen, egunero egunero, txikiteo demasak egiten, gonbite guztiak onartzen, nik neuk egiten ez nuena, eta, behin edo behin, Maitena berpiztuaren altzoan errekan gora joaten, belarrietara Yeregi makina-

txoaren murmurioa heltzen zitzaidalarik, barbaroa ematen zuen aborrots leun hura zabalduz airean. Eta bilatu egin ninduen arren, ez ninduen aurkitu.

Entzun nituen, bai, tangoak behin eta berriro portuko terrazan jazarrita, Bandoleón arrabale-ro, eta gaueko orduetan are aditu nuen, Wait For MeDownBy The River, zorionak bihotzeko zuloetan odola maitasun-edabe bihurtzen zaizuen guztioi, halaxe esan gura bailuen legez. Santiago gauean esan nion, alboko herrian ginela, kasualitate hutsa, eurengandik alde egitearren joan bait nintzen hara, Marianne, utzidazu halantxe esaten, gaseosa bihurtzen dira edonoren garunak zure aurrean.

Autoan gentozela esan nion. A atzeko jazarlekuan nekarren, sekulako mozkorra aldean, lo. Damurik ez, esaten diot behin eta berriro neure buruari. Autoan laga genuen A.

Goizalde hura eta Urteberrikoa bat ziren, zazpi hilabeteko tarteaz ezabatuta geratu bait zen gure larruetako dardarek bat egin zutenako. Ohea ordukoan, hareatza oraingoan, buztin zati batekoak izango dira gure haragiak, argi bateko-



ak gure begiak, beti. Damurik, ez. Askoz ere gutxiago gaurkoan.

**Gaurkoan**, eskutitza ailegatu zait. Calle Heroes del Belgrano, n o 7, Rosario, Republica de Argentina, A.ren izenaren azpian idatzita. Barruan, eskutitzarekin batera, argazkia: A, Beatriz eta umea.

Bost urte igaro dira, edo sei. Batek daki, zertarako kontuak egin, berdin dio horrek. A.k esku-titzean diostan moduan, ia ez gagozak umeke-riatan ibiltzeko sasoiari. Berak, hala eta guztiz ere, Belgrano hondoratuaren izena duen kalea hautatu du han ere, gurata, ziur nago. Zelan dago gure Maitena? Bearen zaharrak dioenez, ez juen Yeregi makinarik erabili ihesean, lurrun-gal-daraduna baino, lehenegoko beste gorabehera-ren baten erabili jua Yeregia, Beak ez jok kan-tatzen ja, hilda jagok Maite Amor.

Yeregi eta Maitena. Ni banoiak eta, geratu hadi heu enbarkazioagaz; ondo jagok gero. Ar-gentinara alde egin aurretik esan zizkidan azken hitzak dira. Durdituta geratu nintzen. Bearen

zioak ulertu gura izan nituen. Urteberriko eguneko goiza gogoratu zitzaidan, egun bi lehenagokoarekin nahasian.

«Ameriketara joan nintzan...» hasi zen kantatzen orduko Maite Amor. Txusen umea negarrez hasi zen. Kitarra isildu eta gelara joan ginen. Umea besoetan hartu berak, Ene! Ene! Ene! behin eta berriro xuxurlatu eta musu artean loarazi zuenean kuman utzi zuen berriro. Begiak begietan, elkarren gerriraino joan zitzaizkigun eskuak bioi, astiro. Hemen? Berton, bai, zertan ez.

Lurralde hura esploratzea, ene baitan aintzinarik gordeta zetzan maparen bidez ibiltzea izan zen, alde zurretik hamaika bider ikutua, laztandua, musukatua eta haginkatua bainuen. Ez ote nituen ba ezagunak, mendiska bi haiek, gailurre-tako haragizko haitzak, bestaldeko harana, alde-rantzizko basoak, surik gabe dirakien galdara, kanpoz barrurako labea, dena? Eskuak nongura pausatzen nituelarik bete egiten zitzaizkidan eta gure isurkinek bat egin zuteneko erreakzio kimikoak elektrokutatu egin ninduen. Senaren senaz bat egiten duten piztiak izan ginen, teleaginduek gidatzen dituen asturuntziak, harria eta gorol-

dia, zigarroa eta kea, bat egiten duten era guztietako biak. Azkenengoz Argentinara joan zene-koaren bezperan izan ginenaren berdintsu. Gure barruko zirkuitoetan agintzen duten programak elkarren kopiak dira, hurrean. Ikaratu ere egin ginen. Elkarrengan haragipeko zein sumendi izoitu ote genuen, ezezagunaren bildurrez.

Geratu zaitez hemen. Egunargiak leihoa kis-kali nahi izan zuen eta txolarren txintek goiza zuloz josi gura zutela eman zidan. Ezin dot, erdu-zeu bertara. Ni bertara? zigarroa piztu nuen. Ez batak ez bestek, ez daukagu inon lotzen gai-tuen ezer. Nik bai. Sorbaldan jarri zitzaidan, be-soez inguratu eta eskuak ene ditiburuetan txi-txumarkaka. Belarrira esan zidan. Gaurko argaz-ki horretan ageri den mutikoaren ama da. Semea? Zuntzunduta utzi ninduen. Negar egite-kotan izan ginen. Ez da Urteberria hasteko modua, esan eta afalosteko whisky apurrari ekin genion, gogoz. Txus etorri arte itxaronda gero, alkoholezko anestesia sendoago ezarri genion gure grinari, betirako lo gera zedin.

Hurrengo udan itzartu zitzaigun berriro, beste behin, eta elkarren larrualdea lehenengoz

ezagutu genueneko berbera izan zen bidea. Oporraldi guzti haretan gure buruari ukatu eta ukatu egin izan genionak, ustebakoan gatibatu gintuen berriro. Gure kateak dardara bakarra egin zireneko, barruko iturriak ireki zirelarik, negar egin zuen. A.gaz joango naiz.

Zer erantzun behar nion jakin eta Plaia hau neuk garbitu behar dot goizeon, otu zitzaidan; A.gaz? Bai. Inoiz ikutu dauen andrazko bakarra zara, bakizu, ezta? Eta? Ezebez?

Ezebez. Hala da ze, hortxe dagoz argazkian, semea, ama eta A. Aita diotso umeak, ziur. Bost urte joan zirena. Umeak, zenbat urte? Bost, bost t'erdi, sei? Nork igarri behardu ezer, halako adinetan alde nabarmenik ere ez dago eta. Zorionak, Maite Amor, zorionak A. Agur eta ohore Belgranoko heroeak, hondoraketa guztietakoak, marinel ausartak eta zeren ederrak.

Urteotan neuk erabili dudan Maitena honetan joango gara hirurok, elkarren sekretuen jakituan guztiok, eta A.k berriro esango du, Ikaragarriak dira Yeregi hauek, burdinezko nanotxo honen

barruan galdara itzelak diraki. Hogeitamabost urte beteta ja, kalkuluak egiten hasten bait gara, nork daki ez ote dugun gure urteen erdia erre dagoeneko, kerik ikusi barik horregatio, engainatuta. Ze zer da bizitza, batere ke barik erretzen dugun zigarrotxo hau baino.

# Atoiuntzia

Neguko goiz hotzetan madarikaziotzat jotzen genuen laino berbera bedeinkatu egiten genuen udako egun sargoritsuetao ate bilakatzen hasi zenekoan. Pizti akatu berriari larrua erauztean darion lurruna dirudi su gabeko ke horrek. Eta erreka, infernuko galdaratan erretzen den sugea da, narraz etorten itsasoraino, urrinetako mendietan sumatzen den paradisuatik jainko kupidagaberen batek jaurti duen pekataria bailitzan, zikinkeria kiratsuen garraiari ihardutera betirako kondenatuta.

Goizeko lehen orduetan suteak pizten zituzten ibarretako untzioletan langileek, bidaien barruan egurrak sartu eta sopleteaz iziotuta. Atoiuntzitik begiratuta, erreka ezezagunen baten lehenengoz sartu eta alboetako indigenek zelatan genituela ematen zidan. Gero, uretan gora joan ahala, ubidea estuagotu eta eguna argiagotu egiten zen. Lainoa deuseztatu eta eguna argiagotu egiten zen. Lainoa deuseztatu eta goiz

birginala agertzen zen, ekurutasun miragarriaz, herdoilaren menpeko paisaia haretan.

-Hori zubi hori egunean hamaika bider igiritzen eta zarratzen ezagutu dot nik oraindino asko ez dala -Eusebiok sarritan esaten zuen, Deustuko zubiaren azpian igarotzean.

Atzean uzten genuen Euskalduna jada bertanbehera lagata dagoen hura, piztitzar fosilduak diren garabien histura metaltsuari eta teillatu arrakalatueta hazten den bedarrari mututasunez berbetan. Gure eguneroko helburua apur bat gorago zegoen. Mila bederatziehun eta laurogeita ez dakit zenbatgarrenekoan izan ziren uholdeen bitima hura «Consulado de Bilbao» itsasuntzia, erreka erditik kentze lanetan laguntzera joaten ginen.

-Hor dago kabroi hori, urten gura ez eta guk potrotatik eutsita ateratzeko eskatuten -gure zereginarari ekin aurretik, goizero tema berbera izaten zuenEusebiok.

«Consulado de Bilbao» hura erreka erdian zeztan, hondoa jota, udaletxearen aurre-aurrean, halako moduan non apurka apurka sekulako barrikada bilakatzen ari zen, errekek garraiatzen

zituenetarikoko asko kraskoaren aurka jo eta bertan geratzen hasita bait zeuden. Aintzina «Ciudad de Ceuta» izaniko haren barru dotorea basaz eta denetarikoko hondakinez beteta egon eta azalera ekartea ordurako ezinezkoa zenez, kraskoko xafladura zatika ebakitzea eta bertan deuseztatzea erabaki zuten. Horrexetan laguntzera joaten ginen, hain zuzen.

Gure zeregin nagusiak bi izaten ziren; husten ziren botilak, azetileno eta oxigenozkoak, eroan eta berriro ekarten genituen, beteta. Bitartean, urpekariek euren zeregina bete artean defuntu aristokratiko hura ahalik eta kanpoen egon zedin, sokez estekatu, makinari abante erdian jo eta tenk eginda eukitzen genuen, azalean. Hala-koetan ginela, kubiartara etorten zen gure untziko nagusia, Martzel.

Egunero lehen zigarrotxoa piztu, ababorreko karelean jesarri eta agindu egiten zidan:

-Ekarrik litrona hori, ea goiza behar dan moduan emoten hasten garan, txo!

Miretsi egiten nuen Martzel, hogeitamar urteak ondo beteta zuen gure patroia. Hirukote ederra osatzen genuen Eusebio zahar gailegoak, Mar-



tzelek eta hirurok. Denak elkarren ezin ezberdina-  
ngoak ginen.

-Hori Consulado kabroi hori! Ez jok abentura  
gitxi ezagutu madarikatuak. Merkanteko kapitai-  
nen habia izan zuan azkenengo hamar urteotan  
eta lehenago be, egin dozak horrek hamaikatxo  
itsasote. Transmediterraneako korreetxoia izan  
zuan, Estrechoan. Horregatik «Ciudad de Ceuta»  
izena.

Itasoko gorabehera guztiez arduratuta bizi  
zen Martzel, hala teknikoez nola historikoez zein  
bestelakoez ere.

-Ez jakiat faxistak garraiatzen be ez ote zuan  
ibili ama putearen barkua gero. Klasekoa eta kla-  
sista izan dok beti bera -hala esan Martzelek eta  
bebingoan erantzuten zion Eusebiok.

-Zantarra zara gero! Hori diozu Ofizialen  
kluba izan dalako. Zu be zara ofiziala.

Eusebiok euskara apurra zekien, itsasaldie-  
tan eta itsasaldietan euskal marinelekin ibili eta  
belarriz ikasita. Bada, Martzel ere ofiziala zen,  
eta ofiziala izan behar du oraindio ere, bere  
burua horren eritzita ez bazuen ere. Sindikatu Li-

brekoa zen. Eusebio berriz, ELAkoa, harrigarria bada ere, ze, berak esaten zuenez,

-Galego nazionalista naiz ni. Emoten deusot botua peneuberi hemen eta gure partiduari emongo deusot Galizan, jubilatua naizean.

-Galego potrozorria, hik ez dakik behargina eta ugazaba ezin egon direna partidu berean ala?

Aldarri egiten zuten arren, ez ziren urrunago heltzen euren arteko zalaparta politikoak. Makinak gainbegiratu behar zituela, eta alde egiten zuen Eusebiok, edo presako zereginen bat bete behar zuela otu izaten zitzaion Martzeli.

-Hi hoa sokak zelan dagozan ikustera -agintzen zidan.

Urpekarien maniobrei begira geratzen nintzen luzaroan, sokak jagotearen plantak egiten nituelarik. Ur uherretan sartzen zelan ausartzen ziren, harritu egin zitzaidan bihotza halako baten bat gainazal ilunaren azpian galtzen zeneko. Consuladoren txopa aldean atrekatutako gabra erabiltzen zuten basetzako urpekari eta teknikariek. Ez zuten Athletic-entzat atondu zuten dotorea, ez gintzaizkien txapeldunei txorkatile-

tara ailegutzen, eta halaeta guztiz ere ikusle ja-kinguratsuak izaten genituen beti begira, zubian gora eta behera ibiltzen diren oinezkoetarikoa, atso-agure jubilatuak, kolegiotik irtendako neska eta denda-mutila, langabetuak, treneko bidaiariak, udaletxeko eskileretan protestatzen ia egunero iharduten zuten taldeak eta, oro har, kalean zernahi dagoela ere berorreri begira munduko zerik garrantzitsuena bailitzan geratu izaten diren adituak. Hiriko faunaren argazkia burutu nuen uda haretan, Itsasketa Eskolako lehen ikas-turtean egonik, neuk gurata praktikak egiten sartu nintzela. Hamazortzi urteko mutila, bedein-katu egiten nuen goizeko lainoa eta gogotsu musukatzen nituen litronaren ezpain kristalitsuak. Borobila zen mundua, ederra sunda eta kiratsa darion erreka suge antzekoa, entzungarriak Eusebio eta Martzelen arteko autuak eta, zelan esan, bake zaratatsu eta sakoneko hura ezerk ere ezin hautsiko zuela ematen zidan. Begitandu egiten zitzaidan, bada, egunen baten harro esan ahal izango nuela:

-Geuk atera genduan «Consulado de Bilbao» ha hondotik, zatika. Bilbon Elia Kazanek zinea

egiteko aurkitu ahal izango eban atxakia zuan barku hura, ederra.

Eta esaldiaren azken zati hori Martzeli hainbatetan entzunda niola, Elia Kazan bera nor den argi ez dudala, ez nion halakorik esango etorkizuneko nire entzuleari, balizkoari. Balizkoari, bai.

Hamazortzi urte nituen orduan, Abra I atoiuntzian ibili nintzeneko udan, hogeitabi ditut orain, oroitzapenok idazten ari naizenean. Praktikak egitearren orduan, piloto nabilen lehen itsasuntzian gaur, ura sumatu izaten dut beti hor behean, sakonetako arrain itzelen baten igeriketak dardarazita beti, bizirik, ezkutuko mezuren bat iragarri guran akaso. Horrexegatik ote da, bada, indar ezezagun batek ekarten nauena ozeano erdian aspaldiko jazoerak idaztera, edo ez ote da sasoi haretan zoriontsu bizi izan nintzelako? Zoriontsu, bai, harik eta bala txarto desarratu batek dena erro berrietara ekarri zuen arte.

Zoriontsua izaten nintzen eguerdiro udaletxearen alboko taberna haretan -Arratiarra ote zuen izena- bazkaltzera jezartzen ginelarik.

Etxeko neska hain hurrean ikusteak berotu egiten zidan odola.

-Hor daukozu neska ederra, Martzel, txopa eta proa artean ibiltzeko moduko bapora -adarra jo gura izaten zion Eusebiok.

-Baten batzu hobe izango leukee euren emazteari jaramon egitea, neskei begira ibiltea baino -erantzuten zion Martzelek.

-Zer, altxaten jatsu zuri ala? -neuri jo gura izaten zidan adarra gero.

-Berari igoten ez jakolako zinok hori -neure alde egin guran.

Andrak, ahor gure gai nagusi bietariko bat. Bestea portuko egoera izaten zen. Grebaren baten ondorioa izan behar zen Martzel atoiuntzi kakanarro eta zikin haretan erabiltzea. Errepresalia hutsa.

-Kaguendios Euskalduna -esaten zuen beti, errekan behera gentozela, arratsaldean ja, untzolaren aurrean igarotzean.

-Hor guk atera dogu barku merkante handiena mundukoa -atoiuntzientzako lana egoten zen sasoiak gogora ekarrita Eusebiok.

-Eta gero astilleroa popatik hartzen joan daian itxi dozue, sindikatu salduok. Ez da arraroa, ze hortxe eman eutsozan zorionak Sotak Alfonso XIII.ari, txapel okerrek huelgetan erabili eben trebetasunagatik emon be. Nola aldatzen diren gauzak, kamarada!

Hertzainak-en kantuetako esaldiren bat edo beste erabiltzen zuen beti Martzelek, aldian aldian esandakoa azpimarratu guran bezala. «Eutsi gogor, Euskalduna» kantatzen hasten zen eta kaguen dios esaten zuen berriro, Zorrozurra heldu orduko. Han hasten da kilometro luzeetako lantegi bakarra, zeinari enperadore modernoren batek hasiera emateko Garaitza Arkua ezarri gura diola ematen duen. Errontegiko zubia begiestean esaten zidan Eusebiok:

-Kolunpioak ipiniko dabez hor, kolgatuta.

-Zure sindikatukoak eskegitzeko, baina hobe soka sendo bat ondo amarrata saman -untziko zubitik Martzelek.

Gogoko izaten genuen aintzinako Astace untziolaren alboan geratzea, Erandion txikiteo labor bat egitearren. Abra I gurea aspaldi moila

jendetsu eta bizitasunez betea izandako haretan utzita, oinez abiatzen ginen, tabernei buruz.

-Ostiyе da zelan bajatu dabeen hemengo tabernak. Lehen menuak piloak emoten eta orain mierda puta. Akordatzen naiz...

-Kakazaharra akordatzen zara! -aldarri egi-ten zion Martzelek- Zenbat huelgatan egon zara sartuta, zenbatetan, zuen sindikatu mayoritario ostiyok dana hondatuten hasi orduko? Orain, amarena joan negarrez!

Mundu guztia ezagutzen zuen Eusebiok, epa honi eta aupa besteari joaten zen eta. Martzelek ere ezagunak zituen inguruan.

-Goazen horra -esan honek.

-Horra, no jodas, drogadiktoak dagoz -besteak.

-Ostidxe lakoak zaree zuek, itxura ikusi eta drogadiktoa esan, ez daukozue beste barbarik.

-Bale, goaz orain horra eta gero nire lekura -amore ematen zuen Eusebiok.

Gustora ematen zuen amore, nik uste udako arratsalde beroetan ditiak erdi agerian, beso bako kamisetetan, halaxe ibiltzen bait ziren nes-  
kak Martzelen leku ezagunetan.

-Honek dana ikusten jok drogadiktua -esaten zidan, Eusebio komunean zegoela aprobe txatuz.

-Zaharra da eta...-esaten ausartu nintzen.

Egia esan, egunero agertzen zen berriren bat egunkarrietan, San Inazio, Elorrieta, alde hartan egiten ziren droga-mugiden gainean beti ere. Farmakotegiak benetako gotorleku blindatuak ziren, giltza eskatu behar izaten zen komunera joan ahal izateko -ahor Eusebioren protesten zergatia- eta drogaren mamuak ikara sorta berri batez astintzen zituen halako herri proletarioak. Nik neuk speeda hartzen nuen noizean behin, larunbatetan batez ere, lagunek martxila behar zela esaten zuten eta. Portugalete genuen base operatiboa, Monumento Artístico Histórico Nacional den horko labirintoan bestelako kobazuloak bait dagoz. Turismo Sailak gidaliburuak betetzeko beste. «XX. Mendeko Kobazuloak», Kultura eta Turismo Saila, Eusko Jaurlaritza. ETAK lantzean behin kameilo bat akatzen zuen.

-Horrek asesinoak...-esaten zuen Eusebiok.

-Ia argitzen zaran, Eusebio, ze droga hau eta droga bestea, ta, azkenean, asesinos? Kaguen la puta, gehiegi zaree. Azkena eta ni neu banoa.



-Nadie se puede tomar la justicia por su mano.

Ez zekien zelan esan euskaraz. Martzel isilik itzultzen zen atoiuntzirantz. Ekaitzaldi laburra izaten zen, hala ere. Gorago dagoenaren harrotasun mingostuaz begiratzen zuen arazoa. Hikehek zer uste dok, halaxe galdetzen zidala erizten nion begietara zuzenean begiratzen zidanean. Fruitu garraskila hura irentsi behar izaten genuen arratsero. Zoriontsu bizi nintzen, hala eta guztiz ere, atoiuntzia Santurtziko atrakalekurantz eroatean berriro baretuta ene barrua.

Itsasbeheretan alderantzizko bidean etortea-  
ren inpresioa ematen zidaten urek, azken eguzki  
errainuek urazalean labantzean sortarazten  
zuten begi-efektuaren eraginez. Kaio burubeltzek  
kanpo aldeko dike erraldoiko pitzadura eta  
arrakaletara abiatzen ziren. Bizkaiko zubia jostailu  
soil ikusten nuen, zerumugari leihoa ezarri  
guran modura. Eta halako batean, bera ere erdi  
jostailutzat nuen atoiuntziak egundoko bisitaria  
izan zuen. Herio bera.

Urriko hilea da. Goizaldeko ordubiak edo. Gogor jotzen dute atean. Nor ote da, emazte ohiaren buruan galdera dena, hori berori, ziurtasuna da Martzelengan. Polizia, txakurrak. Halaxe da. Abran, policía. Umea lo dago.

Behin etorri umea eta beronen ama ikustera eta hara, txakurrak etxean. Begirapean izan dute. Vístanse. Qué pasa, loaren sakonetik irten barik oraindio. Vamos a registrar la casa. Auzoko bi dagoz txakurrekin. Ustedes luego tienen que firmar. Umea dagoen gelan begiratu nahi dute. Atea zabaldu eta konbentzitu egin dira, umea baino ez. Este se viene con nosotros. Eta emazte ohiaren galdera inozoa, errugabeak baino egiten ez dakitena, por qué, no se preocupe, solo es un momento. Gero arte. Sinestu egin die.

Autoan ja, lehen ostiak, Marcelo, se te ha caído el pelo. Martzel, isilik. Gauez ilunago bere baitako iluntasuna. Errepide ezaguna Bilboraino. Indautxuko txakurtegia. Pasa ahí. Oinetakoei sokak kendu. Poltsikoko zer guztiak zorrotxora. Bera, ziegara.

Behin gora. Osti zaparrada itzela eta zer dela-eta igarri ezinik. Behera. Beste ezagun

batzu ikusten ditu bertan atxilotuta. Gora berriro. Habla. Comando. Konpi. Dakiena lehen bait lehen esateko. Sei, zazpi, zortzi txakurren erdian. Osti bat estomaguan honek, beste bat okotsean horrek, ukalondokadak orain, gero besondoaz sakada itzela saman, kolpe eta ukabilkada andana. No habla. Zertaz baina. Behera.

Gora eta behera, bulegoko mahaian ahoz gora etzunarazi, burua eta hankak inon eutsi ezin eta eskegita. Behera prakak, eutsi potroetatik eta jo eta ke paparraldean. Kolpe sikuak dira, zorrotzak, diafragman bertan. Aldi berean, potroetan txitxumarkaka dabilkio bestea. No se te subirá ahora. Osti zaparrada. Behera. Gora. Zenbatetan? Kontua galdu du Martzelek.

Gaua etorri da. Gora. Txakur guztiak bildu dira gelara. Hamabi bat ¿Sabes qué es esto? Soldaduragileek erabiltzen dituzten betaurrekoen antzekoak dira. ¿Y esto? Pasamountainasa da. Buruan ipiniko diotela eta gero gerokoak. Vas a hablar, tienes una oportunidad ahora. Pentsatzeko. Behera berriro.

Ziegan sartuta, kaleko iluntasuna eta pausu hotsak, hemengo zuloak kalea baino beherago

bait dagoz, ziurren. Beste atxilotuei ez diete ostibat edo beste baino jo. Eta ni, zer egiten da nigan? Martzelek ezin ulertu du.

Gora. Antifaza. Pasamontainasa. Ilun. Kanpora prakak. Esposak eskuturrean. Dandarrez eta ostika, gorago. Eskilaretan gora, moteldu egiten dira zaratak. Atea edo da hau, beste gela bat. Itxi da atea eta isiltasun lazgarria zabaldu da. Behea biguna da. Moketa? Kanpora oinetakoak. Ostika etzunarazi dute. Zer da zaratots hori, aborrots erritmikoa. Ene bada! Eskolako elektrizitate praktikak etorri zaizkio burura. Eskuz erabiltzen den elektrizitate-generagailua da, ziurdago.

Lazgarrikeria gogoratzea bera bai lazgarria. Martzelen hitzak dira, norberari egindako tortura gogoratzen den guztietan torturatu bera berriro torturatua da. Elektrodoak gorputzaldea goitik behera, behetik gora, irudimenak agintzen dien era guztietara elektrizitatez korritzea, ipurtzulon sartzea, barrabletan haginkatzea kalanbrazoek, maskararen eta pasamontainasaren azpian begiak izerditan izatea eta aldarria aluru bihurtzea, ezin azaldu dira hitzen bidez. Gorpu-

tzak, hiruren artean gogor eusten dioten arren, bere jauziak egiten ditu gorputzak, fisikaren lege guztietatik kanpo bailegoen gorputza, bere legeak bailituen gorputzak, hezur-giltzarduretan energi iturri ezagunak irekita bezala gorputza. Zerbait esan beharko edo gura diela pentsatzen du behin eta berriro Martzelek. Ez dauka zer baina. Eta Matarme, Matarme, alaruetan eskatzen die. Matarte, hijo puta, no te vamos a matar por ahora. Luego igual sí.

Sudurtzuloak ireki zaizkio inoiz baino zabalago, begien zeregina bete guran. Garagardo usaina dario honi, haginak garbitu berri da bestea. Nortasuna usaina da. Eta oinazeari ekinean, horretan bakoitzak isurtzen duen amorrua bestelakoa da. Amorruren arabera ezagutu ditu torturatzailleak dagoenako. Piztia da Martzel, bizirik irauteko ere heriotza eskatzen. Tortura ez bizitzea ez heriotza den beste egoera bat bait da.

Eta behin behinekoz dena amaitu denean, eskileretan behera dakartela, estrapozo egin du Martzel itsutuak. Eusten dion txakurra sumatu baino ez du egiten, ez du ikusten. Jausi egin da.

Min hartu du. Hau ikara. Me ha hecho sangre el muy hijo de puta. Ostiak behin eta berriro.

Burukoak kendu dizkiote gero. Bueno, el comando seguro que ya se ha largado, o sea, habla, pedazo burro. Ostiak berriro. Eta behera. Katarsi antzekoa nabaritu du Martzelek, halako lasaitasun bat. Eta ezin kendudu burutik txikita-ko kanta hura, vuélvete al caserío. Ziegara dakarren txakurrak galdetu dio, donde te has hecho eso, ikaratuta. Berria hau ere. Edo zinikoa. Quieres un médico. Sí. Gora berriro. Medikua eskatu duenentz. Bai. Euren baimena barik ez dago ezer han. Y esta noche va ha ser peor, behin eutsi diola baina, birritan ezetz, hamaika edo ez dakit zenbat gradu dagozela torturan. Goiza da ja. Ziegan sartu eta beste atxilotu bat aurkitu du Martzelek bertan.

-Zer egin diate, apurtuta hago eta.

-Zer? eta hik zer egiten dok hemen?

-Farmazi bat atrakatzen harrapatu gajuezak horko beste zeldan dagoena eta biok. Como estás? -alboko ziegara aldarri atxilotu berriak.

-Monoak harapatzen banau konponduta nagok, txo. Kaguen zotz, hemen jaukat bultu hau. Edo laster operatu edo itsu geratuko nok.

Desatrekatzen ari ginen. Aurreko soka deslotu Eusebiok, atzekoa nik, Martzelek ababorrerantz jo zuen, pal-palean, burua puenteko leihotxotik kanpora, etor zitekeen edozein untziri adi. Txakurren autoen sirena-hotsak airea larritu eta barruak artegarazi zituzten bapatean. Lehorrerantz begiratu nuen, soka biltzen nuelarik. Persekuzioa. Motor gainean halako gaztea, txamarra beltza eta ile laburra. Atzean, auto kamuflatua, kanpoko sabaiaren gainean argi birakorra jarrita eta sirena erre beharrean, ketan. Abiadan biak. Halako batean, semaforoaren aurrean, ezkerretarantz jo du mutilak. Motorra uretara jausteko dela, salto egin eta lehorrean birinbolaka hasi da. Txakurren autoak semaforoa gainditzen du. Zutitu eta alde guztietarantz begiratu du gazteak. Oraindio ez gara moilatik hiru arrabete urrundu eta, hara non, korrika hasi gaztea eta gure untzira salto egiteko da.

Sekulakoa egin zuen jauzia. Kubiertan jausi eta behea ikutu orduko erdi zutitu egin zen. Neure begien aurrean daukat orain ere. Eskuinean pipa, nondik irten duela ez dakidana, ezker eskuak burdinari tente eusten laguntzen dio eskuturretik beste eskuari. Ukalondoak kubiertan ditu, eta hankak erdi belaunbiko, Sagararioaren aurrean bailegoen, hau da, ni gurtu izango banu bezala. Guztiz kontrakoa da beraren asmoa aitzitik.

Kontrapikatuan begiratzen nau berak, pikatuan nik bera, eskena labur-laburra den arren, egundoko luzeena egin zait, Eusebioren ahotsak, Martzelenak, txakurren frenakadak, gainerako autoen klaxonkadek -protesta egin guran- inguratsa lehertzear dutela konturatu orduko. Begiak izan dira adi gorde dudak bakarra. Begiak, aurrean dudak morroi gazte harenak bezain ikaratuak. Ñir-ñir etsitua zebilen dantzak haietan. Ez dakit niretan. Dardara batek astintzen zion gorputza, goitik behera, halako ahotsaz diostanean:

-!Díle que le de breada, que queme la puta máquina o te aso, por todos mis muertos que os aso!



Azken hitzok brankaldetik arrapaladan etorri den Eusebio ikusi eta batera esan ditu. Geldi geratu da zaharra zubiaren parean. Martzelek ere begiratu du. Martzelek begiratu eta gaztea bere egonarritik irten ezinik dagoenaren moduan geratu da, gure patroiarri begira, aho zabalik.

-Heu! -euskaraz esan du.

-Neu, bai. Ondino akordatzen naiz, kabroi halakoa. Higatik bada, gartzelan be niagok orain. Txibato txakurkumea.

Martzelen hitzak ene bizitzan ordurarte entzundako ulergaitzenak izan ziren. Berari begiratu lehenik, Eusebiori gero -zuk be ez dozu ezer adituten, ezta?- eta azkenean, eskena beraren osotasunean ulertu guran, barridoak egiten hasi nintzen.

-Su ateraíok barku potrozorri honeri, bestela kartzelara ez, kanposantora botako zaituet.

-Zer egin dok oraingoan, estankoko atso zaharren bati labaina sartu ala farmakotegian ibili haiz tximinoarentzako kakahuete bila?

-!Alto, Policía! -aldarri egin ziguten txakurrek Astace aldetik.

-Burdin zati ederra lortu dok eta, ja ez haiz ibiliko destorneladoregaz amenazuka, marroi guztiak heuk tragatzen.

Gaitz egiten zitzaidan ezer ulertzea. Atoiuntzia erreka erdira helduta zegoen eta albo bietarantz begiratu nuen. Atzean uzten genuen Eranadio. Han aurrean hiria bezain handia zen lantegia, Bizkaiko Labe Garaiak, erdi bitan zatitzen duen tranbidea, Sestao, errepidea hor erdian ere, gero aintzina padura izandako orubeak, harago autopista eta errepideak berriro ere, porlan eta esmogecko sekulako jungla, eldarnio aldie-tan ere irudikatzen ez den oihana, pistolari zelan eutsi ez zekien gazte harek ezkutazuloren bat lortzeko alde aproposena. Oinak lehorrean ipiniz gero salbatuta ikusten bide zuen bere burua.

Eta han erdian, iluntzeko ortzean sufre eta fosforozko sute ikustezinak isladatzen zirelarik eta beherantz zetorren arreakan zilarrezko printzez blaitzen zirenean hondakin flotagarriak, tragedia bizitzen ari zen eskenatokian, musika umoretsua bagitandu zitzaidan gure Abra I harek ateratzen zuen aborrotsa. Gainerako zarata eta hotsen erdian, atoiuntziak bere temari ekiten

ziola eman zidan. Ur korronteak Galindo erreka buruko nasaren aurka joz ubilak eratzen dituen aldea baino gorago ginen eta, dantzan borobiblean ari zen urazala. Bat egiten zuten urak eta gure makinaren hotsak. Barregurea etorri zitzaidan. Gilotinaren aurrera ekarri duten aiustizigaiak legez, ikararen aurrean barrea nuen defentsabide bakarra. Antzesten ari ginelako sentazio bortitza izan nuen.

-Patrón del barco, deténgase y dé la vuelta, patrón del barco, dé la vuelta -aldarri zegiten txakurrek, filmetan bezala.

Gertaerak benetakoak ziren, horregatiko. Martzel iraganeko unerik latzenak bizitzen ari zen, hantxe bertan, Abra I atoiuntziko zubitik mogitu barik, jezarlekuari lotu eta pantailan halako pelikula bildurgarria, beraren iraganari buruzkoa hain zuzen, bortxaz ikustarazi bailioten. «Laranja Mekanikoa» haretako protagonista dut buruan orain. Gazte harek dena proiektatu zion. Orduan, iraganaren bildur izan zen, presentearena izan beharrean. Halaxe esan zidan «antzezlan» amaitutakoan.

-Hi ez hintzan hiltzeko zorian? kabroi halakoa -aldarrika Martzel gazteari -ez heukean ez dakit ze handidura hor kaskailuan edo ez dakit non, ez hengoan hanka bat kanposantuan ja? Farmakotegia asaltatu zenutela hik eta alboko gelan egoan kolegak? Bai, baina, nire ziegan sartu hinduten. Zeren trukean?

Ibarreko txakurrek aldarri egin ziguten berriro. Geratzeko. Ordurako munipen auto bat eta letxera bi zeuden agertuta hara.

-Ni ez najoan ezer esan -pistola dardarkadan zebilkion, halako moduan non ikaratu egin nintzen, balaren batek hanka egingo ote zion-, eureka jeustien, hik niri ezer esanez gero, ba eurei esateko. Ez najoan ahorik zabaldu horregatiao.

Eusebio mugitzen hasita zegoen, gaztearen dardarkada gero eta bortitzago zela aprobetxatuz eta, Martzelekin hitz egiten zegoelarik, konuratuko ez zelakoan.

-Arrebaren izena eman neutsan, hospitalean egiten dauala behar esan, poltsikoan neukean

dirua be hiretzat, milakoa, txakurrek topa ez eustena. Hik ez heutson deitu.

-Hi hemen hago eta ni neu be, biok gagozak bizirik eta orain berriketa gutxiago eta egik aurrera.

-Eta ez dakik zelan nagoen bizirik, babazto hori? Heuk esandakoari jaramon eginda; zainak ebagi nijuazan, eskuturretakoak, praketako kre-maileragaz. Zainak, entzun dok? Zainak! Eta zazpi egun emon nijuazan han barruan, eurek ipinita benda zantar bat zaurietan.

Zubitik irten barik hitz egiten zuen Martzelek, adi lemari eta gazteari ere adi. Eusebiok ausartago egin zuen aurrera txakurraren azken aldarririk gazteari burua bihurtarazi zioteneko.

-Es el último aviso, vamos a disparar.

-Eta orain, zer berriro? Beste farmazi bat asaltatu dozue, atsoren bat akatu dok, zer dala ta daukak hainbeste txakur atzetik. Txakurrak txakurrari haginka edo? Hilko ahal haiz, putakume halakoa!

Eusebiok gaztearen alboraino jauzi egin, bapatean, eta tiro hotsa izan zen aldi berean. Behera joan nintzen, naizen luzea. Halako zer

beroa nabaritu nuen okospean. Tiro hotsa atertutakoan begiak zabaldu nituen. Odola zen, odola, halako lats luzenga gorria, untziko estaldurak eratzen duen aldats apurrean behera zertorrena. Alborantz begiratu nuen. Behean datza Eusebio, ahoz gora, alkondaran halako gorriunea duelarik, samatik gerrirainokoa.

Abra I gureak Labe Garaietako nasari buruz zihoan artez, lemazainik barik, Martzel abiadan etorri bait zen zubitik txopa aldera, Eusebioz arduratzera.

-Hoa heu zubira eta egin hadi enbarkazioaren kargu -aldarri egin zidan, Eusebio beso artean hartzen zuelarik.

Galegoz aditu nuen Eusebio mintzatzen. Horrek, bada, hil haginean zelakoa susmarazi zidan, ze, halakoetan amaren ahotik entzundako hizkuntza gogoratzen dela diote.

-Aqueste si que fizoz xustizia da sua man.

Dardarkadan eta izertzan zegoen gaztea. Barau sindromea ote zen nioen nire artean. Atoiuntziak aditasuna eskatu zidan, arretaz egin ahal izateko atrake maniobra. Hala bada, ez dakit geroko hitzen berririk. Brankak nasaren

aurka jo eta arrapaladanalde egin zuen gazteak. Uretara joan zitzaion pistola untzitik lehorrerako bidean, ez dakit berak gurata ala ustebakoan, baina, edozein modutan ere, betirako galduta froga hura. Motorra eta biak egon behar dira errekako kanposantuan. Nork daki ez ote diren laino artean azaleratu berriro, halako egunen batean, sugeak bere baitatik gomitatuta.

Hanka egin zuen, ikatzezko eta burdinazko meta itzelen artean. Trenaren txistu-hotsa aditu nuen han, lantegia zati bi eginez zuritzen duen trenbidean.

-Hi,txo, egik berriro Erandiorantz, txakurrak dagozan alderantz. Anbulantzia eskatuko joat eta.

Nautika eskolan erakusten duten seinale sistemak zertarako balio duen ulertu nuen, lehenengoz, Martzel besoez sos seinaleak egiten ikustean. Zoritxarrez, han lehorrean ez zegoen horren berririk zekien inor ere.

**Astaceko** nasan denetariko poliziak genituen zai. Estupak ziren nagusi, eurak bait ziren gaz-

tearen jazarkuntzan partehartu zutenak. Anbulantzia aldiz, luzatu egin zen etorten.

Etorri bitartean, Eusebio lehorreratu gura izan zuten txakurrek. Gogor egin zien aurka Martzelek.

-Hasta que no llegue una camilla, ni moverlo.

-Nos enseña el documento, si no es molestia?

Irratiz hitz egiten ihardun zuten txakurrek. Erzainek trafikoa bideratzen zuten, bien bitartean. Anbulantzia heldu zen laster. Martzel eta biok han geratu ginen, Eusebio gixajoa ezer esateko gai izango ote zen, itxaroten.

-Eusebio kabroi halakoa! Ez zara hilko orain, ezta? Galizan emon behar deutzazu botua zure partido horrerri, sekula zein dan esan ez deuskuzunari, caraillo Eusebio, caraillo! -negargureak gorrituta zituen betinguruak Martzelek.

Kontzientziarako atalasea gaintitu barik baina, azpikontzientzian lehenagotik ere bane-kiena, hots, azaleko gogorkeriaren azpian halako elkartasun-jario bat, begirunezko korrente ezku-tu bat, beti egon izan zela Eusebio eta Martzelen artean, inoizko argien erakutsi zidan gure Abra I



haretan patroi izan genuen gizonaren begiradak. Ohatila agertu zen han azkenean.

-Usté se viene con nosotros -Eusebio anbulantzian sartu eta atoiuntzira itzultzekotan zelarik esan zioten Martzeli txakurrek.

-¿Yo? ¿Por qué?

-Porque lo digo yo.

Eurekin eroan zuten Martzel. Bakarrik geratu nintzen, atoiuntziaren ardura hartzekoak ziren konpainiako lankide ezezagunen begira, ertzainki biren laguntza estimagarriarekin. Ez genion hitzik ere egin elkarri.

Astace ingurua, apurka apurka, husten joan zen. Errontegiko zubira begiratu eta Eusebioren hitzen akordua etorri zitzaidan. Kolunpioak! Arrapaladan igarotzen sumatzen nituen autoak han goian. Serantes mendia ilunetan urtzen zen zegoeneko. Atzerago, Petronor-eko tximinia garaiei tai barik darien gernu gasezkoa sumatzen zen.

Zenbat minututan jazo zen guztia, ezin kalkula nuen. Hamar? Ordulardena? Bada, apur bat lehenago zorientzua nintzen. Borobila zen mundua, betirako gure triangelua, munduko barkurik

atseginena Abra I hura eta, zer esanik ez, betirako «geuk atera genduan hondotik» esan ahal izango genuen eta zorionaren gailurra «Consulado de Bilbao» haren alboan atrekatzea, sendo tenk egitea eta urpekariak erreka-altzo uherrean galtzen ikustea zen.

-Hi haiz Abra I-ean praktketan dabilena? Barkuaren kargu egitera etorriak gaituk -auto apartatu berritik irtendakoek neuri zuzenduta.

Neu naiz, bai -dakidan euskararik korrektoenean erantzun nien.

Etxera joateko esan zidaten:

-Hemengoa ikusia zegok. Hoa etxera.

-Baina, Eusebio, nola dago? Eta Martzel, zer egin da Martzelekin?

-Agureak ez zeukak ezer -hurreen giputza zen hitz egiten zuena, gure konpainiak Pasaian ere untziren bat edo beste zuen eta, bertakoa edo-, gehiago izan dek kea sua baino. Besteaz ez zekiagu ezer. Hoa etxera, motel!

Konpainiakoak eta ertzainkiak atoiuntzia goitik behera miatzen eta errekestutzen zihardutela ikusi nuen autobusean sartu orduko burua itzuli eta Abra I-i agur esaten niolarik. Lehortarra nin-

tzen berriro ere, piperlata zantar haretan sartuta.

Arratsaldean beherantz egindako bidea gorantz egin genuen. Ez zen gauza bera zubiak goikalderik goikalde ibiltzea ala azpirik azpi ezagutzea. Udaletxe aurreraino ekarri ninduen gerra osteko bus zaratatsuak. Bertan jaitsi nintzen kalera. Zubian geratu nintzen. Hantxe zegoen «Consulado de Bilbao»ren kraskoa, beltz, basa ilunak gainez eginda barrua, marea beheran. Urazaletik gora, agerian zuen karel zorrotza. Ez zen besterik, krasko hutsa eta basa beltz hura baino. Ibarretan, hondakin-ura isurtzen zen, kirastua eta grisaska. Estolderiaren oparia antxeta eta kaioentzat.

Begien aurrean halako mintza izan banu moduan, gure goizeroko helburua han hala ikustek urratu egin zidan ordurarteko oihala edo, iragazkailu moduko hura, zeinak mundu borobil eta ia perfektoa helarazi izaten zidan adimenera. Labirinto erdian ikusi nuen nire burua, deblauki. Martzelen egunerokotasunaz bestaldean nik ezezaguna nuen mundu ordura arte igartezina zegoen. Eta ene artean nerabilen galdera, zein

mundu ezezagun ote zen gazte yonkiarena, zein Eusebiorena, zer zuten txakurrek gure patroia-  
ren aurka eta beste hainbat eta hainbat. Hor be-  
hean, ura beti dago dardarkadan. Harrez geroko  
ene gogoetetako abiapuntua eta abiaburua da.  
Alfa eta omega.

Iraganari buruzko historia guztiek bezala,  
epilogoak behar izango luke historia honek. Ez  
luke bakarra izango, protagonista haina baino.  
Neu naiz epilogoetarik bat.

Kanpoko untzietan ibilitako Eusebiok esan  
zukeen moduan, stand bay-en utzi zuten Abra I  
gurea. Gaurkotuagoak behar ei dituzte atoiun-  
tziak.

Eusebio denbora zati batez hospitalean egon  
zen. Sasoia baino lehen jubilatu eta Galiziara  
alde egin bide zuen. Hala izan bada, kostatuko  
zaio hemengo erreka begien atzekaldetik ken-  
tzea. Hor geratzen dena deabrua da, ahalmena  
ematen bihotzari. Ez du atsedean egiten, harik  
eta begien aurrekoa eta atzekoa bat izan arte.  
Galegoek morriña esaten diote eta, guk, apala-  
go, mina; errekamina kasu honetan.

Martzelek bere patuari aurre egiten dihardu Sycheeles irladian, atuntzaleetan. Ez zuten ego-kiera alferrik galtzen utzi. Gertaeren biharamu-nean kalean utzi zuten txakurrek eta kalean, go-rrian, ugazabek. Droga-trafikoa egitea leporatu gura izan zioten ziegan heroinomanoa sartu zio-ten berberak. Ez dakit besterik. Behin ikusi ge-nuen elkar, Eusebioren bisitan eritegian ginela. Atuntzaleetara noiak, esan zidan. Irailak ohizko larutasuna zekarren. Azterketei ekin behar izan-go nien berriro.

Historia honetan odola isuri zuen zauri baka-rra geratu da argitu barik, betirako ilunetan be-harbada. Eusebio nork zauritu zuen ez dugu se-kula ere jakingo. Haragia haginkatu zion bala txakurren artxibategian galduta datza. Hitz egin zezaketeenak isildu egin dira. Betirako batzu. Gehidosiak akatu zuen Martzeli ziegan sartu zio-ten yonki gazte hura. Egunkariak ekarri zuten: duela egun batzu poliziarekin tiroka aritu zen gaztea, sobredosiaz hil. Haren pistola erreka on-doko lokatz opakoetan ehortzita herdoiltzen da. Indautxuko ziegan biek izan zuten elkarrizketa gogoratzen zait:

-Tortura egin haute?

-Ez jakiat ezer. Hanka sartu jabek nigaz.

-Ba nik hire kasuan autolesioak egingo neukezak, hospitalera eroateko behinik behin.

Zainak ebaki zituen Martzelek handik irtetearren. Zainetan iltzatu zuen heriotza ziegakideak. Esan didatenez, hantxe segitzen du «Consulado de Bilbao» oraindik ere harroak. Ezin ei dute osorik zatikatu. Behin eta berriro agortzen zaie aurrekontuetako dirua. Batek daki. Nik uste, hondoari atxeki zaio, sendo. Eta marea beheretan agerian uzten duen karel zorrotzean antxetak eta kaioak pausatzen dira. Udaletxe aurrean.

# Mario

Marioen gorpua zen erresakaren tirainak portu barrurantz zekarrena. Itsasadarrean behe-  
ra etorri ohi den laino-adarra urratu guran legez,  
karranka zorrotzez eztenkatzen zuten kaioek lu-  
rrunezko horma urdina. Ni neu, neguko goiz  
eguzkitsuan, Artza aldean nengoen. Kaio zaha-  
rrenak haitz hoberenak hartzen dakite. Enbarka-  
zio bakarra zegoen portu barruan. Lehorrean  
ziren besteak. Filosofaldi bakartietarako abagu-  
nea. Kaioen maniobra orkestralei begira.

Hamarretarako batzen dira lehen parrokiako-  
ak Torronteroan. Gorpuari antzeman zion lehe-  
nak ez zuen sinestu begiek esandakoa. Athletic  
aspaldion, ez dakit nik. Zer da han, han ur gai-  
nean dabilena. Baten bat edo. Filosofiazko itsa-  
sotik erreskatatu ninduten aldarriek. Neu ere  
arrapaladan joan nintzen nasa zaharrerantz.  
Baten bat dagoela uretan, gizona ematen duela,  
heldu naizerako eskuetan du txistea Martzelok.  
Taket luzearen muturrean estekaturiko gantxoak  
da txistea, arrainei, apaiuz behin uretatik kan-

pora ateratakoan, kokotsean sartu eta klak barrura enbarkatzeko erabiltzen dena.

Bizirik ez dugu ta, bildur barik sartu'io. Arrantzale gehienek ez dute igeri jakiten eta, ardua handiz egin ohi dituzte halako maniobrak. Herrian, bestalde, ez dit lagun askorik berba egiten niri. Hala bada, han batutako dozenatxo bien artean lekua ahal dudan moduan eginda kirikatu behar. Gorpua ahoz behera zegoen, harat-honat, uraren dantza berean. Alkondara eta praka bakeruak aldean. Nasarantz erakartzea lortu du Martzelok, azkenean ere.

Itsasoko ertzain bi ditugu herrian, aintzinara go kabodemarrak egiten zituen berberak egiteko. Inork ez daki zer. Itxi geuri egiten, nondik edo zelan agertuta jakin barik, halaxe hasi ziren, itxi geuri! Martzelok Iñakiri luzatu zion txistea. Sakua legez altxatu zuen gorpua ertzainkiak, alkondarari sendo eutsita. Tarrat egin zuen oiha-lak. A saber noiztik dagoen hori uretan, alkondaria be ustalduta dauko ta, Iñaki ertzain tentel haren aitak, Domiñek, semearen troskokeria zuritu guran edo. Bost guri horrek. Nor ote zen, horretan zalantzarik ez zegoen arren, hantxe ginen



denok, gorpuei eskeini ohi zaien fatalitate begi lasaiez so. Mario zen herrian falta zen bakarra. Norena zen gorpua, ez zion inori lar ardura horrek, maniobra berak baino. Estetikak. Bigarrenez ekinda, altxa eta ahoz gora ipintzea lortu zuenean Iñakik, gorpua Mariorena zena, denok egon ginen ziur. Nahiz begi biak falta izan hilkiak. Ebatondoak argitzen zigun ederto bera zena. Ezkerreko begia eta belarriaren arteko erdi erditik ezpain ertzeraino, edozein begiraleren aditasuna erakartzen zuen ubide antzekoa eratzten zuen. Goi mendietan xirripak bezain arin labantzen zitzaizkion bertan jendearen begiak. Ebatondoa.

## II

Gure anaia gazteenarekin ibiltzen zeneko sasoietan egin zioten ebatura Mariori. Alboko herri-  
ra joaten ziren, neskatan eta nahastetan, egia esan behar bada, biak esanda. Neskari, ez dakit inoiz lortzen ote zuten. Bestea, berriz, satsa legez. Beti izaten zuten erriertaren bat. Bultza-

koak ere erabili izaten zituzten. Katez loturiko makilatxo sendo bi, larruz forratuak. Karatekek erabili izaten dituztenak. Hala da ezen, karatearen horexek ekartzen dit gogora orduantxe hasi zirela Kung-Fu pelikulak ematen hango zinean. Karate egiten zuten. Gero, anaia ezkondu ere egin zitzaigun eta, ganora apur bat ikasi duela esan liteke. Emaztea izango zena halakoren batetan ezagutu zuelakoan nago.

Goiz hasten ziren edaten larunbat-igandee-tan. Sarritan, etxera agertu barik egun biez, zubi-gaua eginda ibiltzen ziren. Eta eurek izan gura izaten zuten oilatokiko oilar bakarrak. Laster aurkitzen zuten norekin ezproinkada eta mokokadaka hasi. Laurogeitaz kilo bazituen anaiak orduan. Mario, berriz, ihia lakoa zen. Beti gorde izan du argaltasun hori, bai zaina zulatzen hasi orduko ere. Autoestopean inork ere hartzen ez zueneko garaian errepidean gora eta behera ibiltzen zen, joan-etorri amaitezinetan, argal, burua apur bat makurtuta, blue-jeansetako atzeko partikaretan eskuak, apur bat altxata narruzko jakaren idunekoa. Argal bai argal. Nik neuk, hartu egiten nuen autoan. Istripua izan zuen arte.

Se puede fumar dentro del coche. Euskaraz ez zekien lar ondo. Qué ruina chico. Ez zuen tío esaten. Beti chico. Ebatondo nabarmena zuen. Le he machacau, amorruz esan zidan anaiak Marioren aurpegia sinatzen zuen ebatondoaren zergatia azaldu zidan hartan. No hay embarque y luego te dicen que no trabajas. Izen txarra zeukaten irabazia. Beti begiratzen nion ebatondora.

Le he machacau a ese hijoputa. Gallegoarenean izan zen. Disko bera laupabost bider imini izan bide zuen Txapastak. Beraz, burrunba hark bigundu egiten ei zizkien garunak anaiari eta Mariori. Txapasta, ya está bien, a ver si no vamos a poder ni poner los demás. Txo, niri euskaraz gero, eta ez badakizu, ikastia dekozu. Neuk dakit euskaraz eta zuk zer gu'zu nire lagunagaz. Zure laguna? Osti pare bi kobratuko dauzela, hauri baino besterik ez. Bai? Zuk? Noreri? Zure lagunari eta baita zuri be, bioi, kakazto hori. Kakazto esan dostazu ala? Bai, kakazto esan'tsut. Ni kakazto, ba zu adarrazto. Txo, kobra eingo' zula gero. Emon ia, emon kapazbazara.

Hantxe etorri zitzaion lehen ostia anaiari. Eta Txapastaren lagunak, zart Mariori. Hala da ezen, behearen gainean artean, bultzakoak ateratzen ditu anaiak. Txapastaren lagunak, hori ikusten duela, han hartzen du botila mostradorearen gainetik eta dio, a zuek halakoakaz, mekaguen-dios, marikoi halakoak, ointxe ikusiko'zue. Eta aurpegi-aurpegian ebatura Mariori botilaz besteak. Anaia, odola ikusten duela, begiak sutan altxatzen da, ia ehun kiloko zezen, eta ostika bultzatzekoekin, zirt eta zart, nori edo zeri jotzen dion begiratu barik. Azkenean, gallegoa bera hasi ei zitzaien, kaguen tal, que me jodeis el bar, ze Galegok ere gauza gitxi euskaraz. Txapasta eta laguna, biak behearen gainean utzita, sorospenetara joan beharrean anaia eta Mario, oraindik ere berriro kobratu behar dutela besteak eta, tabernarik taberna jarraitu erronkaren bila. Sendatu gabe utzi zuten ebakidura. Ebatondo itsusia geratu behar, derrigorrez. Eta harexi ebatondoa-ri begiratu izaten nion autoan hartzen nuen guztietan.

Mario hartu dot lehen autoestopean, behin esan nion anaiari. Egurtu egiten dau izeko, antza. Durdituta utzi ninduen, ez nuen itxaroten, ezta inondik ere. Izekogaz bizi da ala? Zer, e'zu jakin, izekogaz bizi da aspalditik. Ezagutu behar nuela izekoa baina, niri ez zitzaidan etortzen nor ote zen. Izekoa jo arren, autoestopean hartzen segitu nuen aurrerantzean ere. Gero eta sarriago egiten zituen txangoak alboko herrira. Lagunak bertan zituelakoan bizi nintzen ni.

Qué tal tu hermano galdetzen zidan beti, gizalegez, autoan hartu izateak ezartzen zion berba-zorra kitatzearren edo, ez dakit. Enbarke-rik ez, beti-beti nik. Ando ahí con este, cómo se llama, le tienes que conocer. Nik ba ez dudala inor ezagutzen eta abar. Haces bien, berak, hobe dela inoren bizitzan ez sartzea, eta, beno, helduta gagoz, hurrengorarte. Recuerdos a tu hermano.

Mario hartu dot autoestopean eta, zera, ja ez du izeko egurtzen ala? Izeko egurtu? Burutik eginda zauz zu. Aintzina hilda dago horren izeko.

Tira ba! esan nion, esturatik ahal nuen erara ir-  
tetearren. Ez dot ezebez jakin. Ez zara enteraten.  
Beti berdin esan behar anaiak neuri azke-  
nean. Ez zarala enteretan, txo. Egia zen, ez nen-  
goen herriko ezereen gainean jakituan. Pikatu egi-  
ten da, hala esan zidanean anaiak, orduan bai  
ustebakoan harrapatu ninduen. Alboko herrira  
egiten zituen txangoen mogida ulertzen hasia  
nintzen. Eta dirua, nondik lortzen ete dau dirua?  
Tentelenei eskaintzen zaien begirada luzatu  
zidan anaiak erantzun modura.

## IV

Dirua ez zen oztopo gaindiezina sekula ere  
izan, andetan zeramaten gorputz haren jabea-  
rentzat, anaiarentzat ere izan ez zen bezalatsu.  
Hiru izaten ziren lagunartekoak. Anaia, Mario eta  
Felisito, ama puta ei zuena. Herriko gixajoenak,  
anaiak sarritan esaten didanez. Beti eurak guz-  
tiaren errudunak. Lapurretaren bat edo egiten  
zeneko, geuri. Beti geu, beti geuri. Eta beste inor  
izan erruduna. Sutu egiten zait anaia halakoekin

gogoratze hutsaz. Orain onartzen du noiz edo noiz zer edo zer egin izan zutena. Orain, umea eta andrea duenean, berriro zuloan jausiko ez dena ziur dakienean. Beranduegi.

Txaplastak Mariori ebatondoa egin ostean, gudalekuz aldatu zuten. Roiloak, aitzitik, betikoa izaten zirauen. Arazo berriez apainduta, hala ere. Kilometro gehiago ziren. Kilometro luzeagoak zirenez, lantzean behin inoren motorra hartzen zuten. Etxean ez zekiten ezer gurasoek, edo, hobe esanda, ez zuten ezer jakin gura, zaharrek ondo ikasita bait dute begiek eta belarriek ekarri ohi digutela ezbeharra. Ez ikusi ez entzun gura ez arren, dena jakin behar izaten zuten gure zaharrek. Mario bera agertu zen atea jotzen.

Ez zuen susto makala hartu gure amak Mario atetan ikustean. Andone, que Ander, esto, que está en Gernika. Eta ama, ikaratuta, zer egin ote den. Bestea, behin errekadua ekarrita, han joan zen, hanka, haizea baino arinago. Amak neuri deitu zidan, telefonoz erdu behingoan txo. Arrapaladan agertu nintzen Gernikara joateko, arin, anaiagaz zer egin den ez dakiela eta. Eskerrak

Mariok beste anaiari ere utzi ziona errekadua, osorik, gure amari esaten ausartu ez zena ere esanda.

Kalabozoan dago, munipen kuarteliloan, halaxe esan ei zion beste anaiari. Arreba eta biok agertu ginen koartelilora. Orain manikomioan sartu behar izan duten alguazil hori eta buruzagia zeuden bertan. Euskaraz egin nien.

Hor dagoen hori mutila ikusten gatoz. Ikustera baino ez bada, tira. Ezin dogu etxera eroan ala, anaiea ta arrebea gara gu. Ezin da, ez, juezagaz barbarik egin barik behintzat. Jueza ikustera joan ginen, bada.

Anaiak, gero ukatu egingo zuen arren, motorra lapurtu ei zuen. Hartu eta Lekeitiorantz joan zela, hango tabernetan lar edaten ibili eta, honantzkoan, sekulako muturkada jo zuela hormaren baten kontra. Epailearen bertsioa zen, jakina. Anaiak ezetz zioen, ez dakit nori eskatu ziotela motorra, eta Mario eta biak joan zirela, eta ez duela inor ikusi gura, eta handik ateratzeko bera. Ba, bidxarrarte bertan egin bi'zula dino juezak, ta eskerrak edaderik ez dekozuna, bestela gartzelan zagoz orain ja.



Hura samindura. Harrez gero, hainbatetan izan genituen antzekoak anaiarekin. Agirika egin arren ere, alferrik izaten zen. Amak benetan gorroto zuen Mario. Eta bestea ere, ama puta ei zuena hain zuzen ere. Zer ez ote zuten ohostu, karelezkanpoko hura, esate baterako. «Evinrude» galanta. Eta beti gezurretan. Harako harek eman diela, besteak utzi diola. Gezurra gezurra-  
ren gainean. Ama, hala ere, Marioren erruz zela-koan, semea barik, beti beste inor ikusi behar kulpantea, berak esaten zuen hitz berbera erabiliz esanda. Ez zuen deskantsu makala izan anaiak ezkondu egin behar zuela zionean. Neska bera ere etxean hartu zuen, seindun zegoelakoan eta gurasoek etxetik kanpora bota zutela eta. Erreka-urkuluan ubide bitan banatzen den ur bakarra zelan, halaxe banatu ziren bien gogoak harez gero.

## V

Asko dira herrian zaldiaren mogidan sartu direnak. Nik neuk ez dut inor ere epaitu gura. Hor

konpon denak ere. Mogidan sartuta ei zebilen Mariok berak, bizitzeko zer egiten ote zuen, horrek niri zer ardura baina, halaxe esan arren neure artean, beti izaten nuen galdera hori bero-ri, gura barik ere, giligili egiten garunetan. Herio- tzaren berriak argitu zidan apurtxo bat zalantza.

Ba'kizu, desagertu egin da Mario. Ene! zelan ba? Txikitoak edaten genbiltzan, anaia, beronen emaztea eta egin duten ume galanta, azken hau, jarraigo modura baino ez, jakina. Lanpernatan joan dira bera eta beste bat, eta desagertu egin da, itsasoan.

Lanperna hitzak entzuteak ama ekarri zidan gogora. Zenbatetan ez ote zidan esan, begien aurrekoa ikusi ez neuk eta, «itsuski, lanperna; txakurra bada, haginka». Hilda zegoen, Marioren izeko zegoen bezala, Mario bera ei zegoen beza- la.

Lanpernatan joan dira, trenbidepeko atxeta- ra, bera eta beste bat, ezatu bi'zu, derrigorrez. Ez dot ezatuten ba. Beste zera da... Bost niri nor den bestea.

Azaldu zidanez, Udazkeneko itsaso biziak aprobeitza guran, lanpernatan joan ziren. Marea

behe-behera datorrenean agirian geratzen diren haitzetan egoten dira halakoak, euretara ozta ozta hel daitekeen lekuetan. Une laburrez, larrua jokatzuz zereginean, zorro bete lanperna batzeko modua egoten da. Arrisku horrek, eta hain eskas egoteak ere, garestitu egiten ditu itsas izakitxo gazi-zaporetsuok. Ez dakit zegan dabilen dosia baina, zeozer konponduko zuten lanpernokin.

Itxura denez, halako leku gatz eta arriskutsu-  
ren batera joan zen Mario, laguna lehorrean bar-  
rurago utzita. Hark, ez du sekula jakin bildurra  
hitzak esan gura duena, hark. Uhinak bits uluko-  
rretan hausten direneko alde bakartsurantz jo  
zuen, antza. Hala da ezen, ezin zuten elkar ikusi  
adiskide biek.

Igaro ziren minutuak, joan ziren ordulaurde-  
nak eta bete zen ordua ere, eta han ez zela lagu-  
nik ageri ikustean, ba, Marioren bila hastea era-  
bakitzen du besteak. Han doa haitz arriskutsue-  
tara eta, zer da kontua?, ez du inor aurkitzen  
han. Ez dago inoren arrastorik apurrena ere.

Itsasoko Gurutze Gorrikoak eta Ertzantzako-  
ak, han ibili ei ziren hara eta hona, ezer aurkitu  
barik horregatio. Beste edonor izanez gero, he-

rriko beste enbarkazioak ere irten ziratekeen bila baina, ez zuten estimu lar handian Mario. Berarekin haitzetan egondakoa ere, laster utzi zuten baketan txapelgorriek. Zer zion inori ere Mario desagertzeak? Bost. Ezta hori ere ez.

Anaiak ez zuen sinesten Mario hilda zegoenik. Halaxe esan zidan gaia berriro atera nuenan berbalekura. Emaztea ospitalera eroaten lagundu nuenekoan izan zen. Badirudi, bada, ezen inoren ezbeharrekin gogoratzeak lagundu egiten dituen norberarenak. Zer dakizue Marioren asuntoaren ganean, hamarren bat kilometro egindakoan galdetu nien. Ezebez, hor ibili direla bila eta ez dabela topa; hori ez dago hilda. Ezetz? zer ba? Horrek, horrek lehen be beti jakin dau, noiz komeni jakon desagertutea, orduantxe egiten missing.

Isildu egin nintzen. Inork ezagutzekotan, nork hobeto berak baino? Handik egun batzuren garranean portuan agertu zen gorpu begibakotuk, aitzitik, ezabatu egiten zituen anaiaren susmoak. Nireak ez, berriz. Ebatondoa baino hamaika bider motzagoa zen begi-ezak, betzulo hustuek hain zuzen ere, eskenarik lazgarrienak, doilorke-

ria sinestezinak, anker-joko gomita erazlea, guzti hori eta areago asmatzeko bidea ematen ziguten, ezen, nork zioskun guri ez zuela lagunak akatu, elkarren arteko kontu ilunak argitzeko ahaleginek edo, barau-sindromeak edo, nork daki zerk, zeozerk, lagunari alamenik piztiena emateraino zorarazita beste laguna. Hala izan bazen ere, testigu barik, ez zegoen ezeren frogarik, nahiz eta, bestalde, lanpernak haitzetatik erauzteko erabili ohi diren burdinak eurok, inori begiak zuloetatik erauzteko tresna ezin egokia-goak zitezkeela jakin. Horrek, bada, susmorik ezkorrenak hartzeko aitzakia eskaintzen zion herriri. Urteko azken sareek ekarri zioten erantzuna susmoari.

## VI

«Lau aeroplano pasata, bat itsasora jausi...», kankak diozenetariko baten hondakinak aurkitu zituen Bittoriano berak aurkitu zuen arrain itzel hura ere. Eta hogeitamarren bat urte berandua-go, ordukoan hondakinak -gogoan ditudanez,

hegal zatia eta lemako beste zati bat- non utzi zituen, bertan utzi zuen arrain itzela ere. Ez dakit nik zertan egin ote dituen bietan berdin. Harrokeriaz, berak ohi zuen lekuan atrakatur gero ez zukeelako horrenbeste lagunik ikusi, ala arrainaren luze zabalak halakoxe leku ederragoa eskatzen zuelako. Beharbada, moila zaharrea lehorreratzean aintzinako liturgiaren batekikoak betetzen zituelako egin zuen, senaren senaz. Marioren gorpua altxa zutenek ere Bittorianok hautaturiko lekura altxatu zuten. Handixek eroan zuten gorpua, hiru egun lehenago andariak. Alde sakratuaren berri eman ezezik, beraren mugak zehaztu zizkidaten, gura barik, gertaerok; handariak, Bittorianok.

Bittorianori bihotz-minez kutsatzen zitzaion harrotasuna antza, ezen, arrainak, apertura itzelak egin zituen sarean. Ernegatzen zegoela ematen zuen, kaguenzozka, herrikoez inguratuta, udazkeneko iluntze odolduan. Moilako orman eskegita, sare hautsia. Han, beherago, arrainaren lepo urdina.

Ze arrain da, ze arrain da, denok elkarri galdetzen. Zekikeen bakarrak, Bittorianok, josita

gordetzen zuen ahoa. Gogoan zituen, ziurren, aurreko bestean ere azaina bihurtzekotan izan zena, zelan egin zitzaion sekulako burukomina. Kabodemarra etorri eta datu guztiak hartu, eta ea hau eta ea bestea, eta Bittoriano bera nazionalista zenez, bada, ikaratuta. Eta nor ez halakoe-ekin. Hala da ezen, baten batek arrain hura Ozeanografi Institutora eroan behar zela esan zuenean, tiene gracia el cuento del descubrimiento atera zitzaion erderaz. Atsegin izaten zuen euskaraz ezezik besterik zekiela erakustea.

Nik neuk, ozta ozta ikusi ahal izan nuen zorioneko arraina. Bi bat metro luze, hegats zorrotzak, buztan boteretsua, begi borobil borobilak, hautsita zuen muturra. Esparroia dok, esan zuen, azkenean ere, Bittoriano berak. Ez dok esparroia ba, erantzun zion Kojuak. Eta, badok ezdok, hantxe hasi ziren erriertan ia.

Neuk dinotsut, hau lehengoan Asturianoaren enbarkazinoari ezpatia sartu eta gero bertan, zuloan sartuta itxi eutsona dok, gizona. Gezurra dok hori zulo hori eta arrainak eginekoa danik be. Isilik egon hadi, isilik.

Ondo begiraturuz gero, bai, nabarmena zen hiru hurrehun kilo inguruko pieza harek musturraldean zeozer falta zuena. Institutoan aztertuko zuten hobeto. Hantxe zetozen monstreaken kargu egiteko ziren ertzainak. Eta orduan errementa zuen Bittorianok, ertzain biak ikustean.

Ama txarridixen arraina, neuk emongo'tsoat instituttoa ta institutondoa. Ganibeta ateratzen du, laburra, zorroztearen zorroztean ia janda duena ahoa. Madarikatu honek arrainak jatzak hor tripa mando horretan, kaguen judaz iskariote, eta eroango jabek, eroan baina, kristo bendo, ez nik tripetan zer daukon ondo beitu barik, kaguen zotz. Sartzen dio ganibeta ahopekaldetan eta, tarrat, goitik behera erabakitzen du arraintzarraren sabelalde zuriska, eskuturra baino gorago sartuta besoa arrainaren barruan. Atzerantz eragin gintuzten odol zipriztinek.

Zer egiten'zu, Bittoriano, geldi hor, arraina ikutu barik gero. Beranduegi. Alferrikakoa izan zen ertzainen zemaia. Besondoak ere arrainaren odoletan blai, sutan begiak, han hasten da arraintxikiagoak ateratzen bestearen barrutik. Ama putearen arraina!



Eta inork ere itxaroten ez zuena egin zen bertan. Arraintxoz beteta esparroairen inguruak, amorratuta Bittoriano, aho zabalik beste guztiok, zer egin jakin barik ertzain biak, hara non, aldarrika hasten da Bittoriano bera, besoa arraintzarraren barruan duela oraindio. Begiak zuloetatik irten haginean ikusi nizkion. Zer ikutu ote dot neuk, jainko laztana! Harenak ziren alaruak, harenak orroek. Kanpora aterata besoa, zabaldu egiten du eskua, arrain barrutik ateratako zeozer jausten uzteko. Behean jotzen du zer horrek, nik zer den ikusterik ez daukadana hasieran. Halako batean, ulu antzekoa askatzen dute sama guztiek bateratsu. Zer da hau! Neure oinetara etorri zitzaidan zer hura, laban-itzulika. Zer lirdingatsua, mintz azal-gorriska jada ustelduak inguratua, txikia eta, aldi berean, ezin itzelagoa, darion boterearen indar lazgarriaren eragin hutsaz itzela, hain zuzen ere. Ez dakit zelan irten zitzaidan esatea baina, esan egin ei nuen, ifernutik itzuli berria denaren ahotsaz edo, Marioren begia!

Marioren begietariko bat zen.

# Epilogoa

Hilerritik begiratzuz gero, han behean ikusten da herria. Herritik begiratzen bada, hor goian ikusten da hilerria. Herriko muinorik borobile-nean dago hilerria, koro gisa. Itsasotik ikusten da hoberen. Eguzkiak egun guztian jotzen du, iparmendebalerantz begira dago eta. Ez baledi gorpuak ereiteko ildo bilaka izan aspaldi, mahastiak landatzeko leku aproposa izan zitekeen. Bertoko ardaoa egin genezakeen, sekula ere ontzen ez direnetarikoa, zuria, ezkutuko leku hoztsuetan gordetzekoa.

Gutxitan igo izaten naiz bertaraino. Inguruetako lizarrek gerizpe gozoa eratzen dute han eta aintzinako harriez eraikitako hormetan goroldioa eta huntza hazten dira, sugandila eta inurrien gordeleketuetako atetak diren zirrikitu eta irtentan gora. Orogen izpilua da kanposantua, hitzez aldatuta, han egonez gero ez bait datorkio egoki hilen herria esatea. Hilen herria gaua da, ahoragia. Gaua gauekoentzat eta kanposantua gorpuentzat. Amuma gurea ere hortxe dago. Bera-

rekin eroan zituen azken sineskeriak. Hango bazterrean amankomuneko fosa egon zen. Italiano mordoa lurperatu ei zuten hor. Amumak ezagutu zituen batzu. Halaxe kontatzen zigun behinik behin, Señora, donde están las mujeres bonitas en este pueblo. No haber, ir se han hecho. Egia, alaba gazte guztiak, mutilak, umeak, Bilborako bidean abiatu ziren, gauez, hegazkinen bildurragatik, egunez joanez gero ametrailatu egingo zituzten eta. Bilbon untziratu ziren, gure ama eta. Itsasoan dagozela ja, ume guztiak kubiertan, argazkietan ikusia izan behar duzuen moduan egon ere, hara non agertu den gerrauntzi faxista hura, Cervera izenekoa. Hura dardara, hura ikara, hura estura, haiek aldarriak. Gure amak negar egiten zuen berrogeitaz urte beranduago, berriro gogoratzean. Tiro egin barik igaro zen Cervera hura, aitzitik.

Liburuetako argazkietan begiratu izaten dut, jakinguraz, hor ote da gure ama, hauetariko baten bat ote. Nora eroan zuten ere ez dakit eta, penaz igarriko nuke halakorik nik. Kanposantu honetan ere argazkiak ipintzen dituzte batzuk hi-lobian. Eta zer da orain aurpegi hori, une baka-

rreko bisaia, keinu jelatua, behiola bero ibili izaten zen odolak eragindako hazpegi jada desagertua? Hemen ez dagozenen argazkiak ikusiko nituzke gogoz. Itoenak esan gura dut. Hemengoak baino ildo sakonagoetan erein ditu Heriok urpetan.

Hamabiko galarrenak eroan zituenak, esate baterako. Zefe alargun, umezurtz eta nebagabe-ko utzi zuen itsasoak. Hirurak, senarra, aita eta neba kendu bait zizkion bidean zekarren umea ezagutu barik. Ordurik aurrera, behar atera behar bizimodua. Makinatxo bat bide egin izan zuten haren oinek. Agertu ziren itotako baten batzuren gorpuak baina, ez honen andra gazte honen bihotzekoenenak.

Gorpurik agertzen ez bazen, oihal beltzaz estalduriko sasi-katabuta ezartzen genuen, geuk, monagilook, aldare aurrean. Behar bat kentzen ziguten, kanposanturaino joan beharrekoa hain zuzen. Ez dagoz hemen. Argonauta galduak dira, urpetan barrena betirako. Hemengoak baino leize sakonagoak, ordoki zabalagoak, alderantzizko gailur itzalagoak, hangokoak, urpetakoak.

Jostun itsuak bategiten ditu gure bizialdiko adobakiak. Ito senarra, semea ere ito, bigarre-  
nez ezkondu da ama. Bigarren senarra ere mari-  
nela da eta bizirik geratzen zaion semea itsaso-  
ra dabil. Jostun itsusia da itsasoa bera. Jausitako  
hegazkinen zatiak ekartzen ditu eta bizion hega-  
lak osorik ebakitzen daki.

Zuhaitz sustraiek sare itzela josten dute lur-  
pean, adaburuekiko simetrian. Halako kapsula  
kosmikoa eratzen dute. Horrexen altzoan dagoz  
denak.

Lurrazalean berriz, panteoiek eta gurutze  
arruntek mugatzen dute oroigarri multzoa. Uge-  
rrak jaten ditu gurutzeko burdinak, ederto haz-  
ten dira likenak harri eta marmoretan zabal,  
izena ahaztuta dituzten bedarrek intsektuak era-  
kartzen dituzte eta, hara, bizirik geratzen diren  
astoetarik bakanen batek arrantzaka egiten  
arratsari.

Argonauta itoek ez dute oroigarririk ez bada  
gura begiradari egonezina ekartzen dioten ur-  
gorataldi eta beherataldi etengabeak. Nork  
landu du harria, harea bilakarazi arte, iruntzita-  
rako errota horrexek baino. Norbera hil eta bate-

ra amaitzen da norberaren denbora. Kainonazok hondorako bidea zabaldu zieten gure Bouei. Heroeak izateko nahikoa da lehorretik so ditugun begiak.

Jerarkiarik gabe, heroeak den denak. Letra haundiz idazten diren izenak ofizialenak badira ere. Ez gaitu bat egiten heriotzak. Barranderoa kalean hil da. Bat denik aberatsekin horko burubuilda kosmikoaren barruan, ezin sinestu dut. Haren semeek ez dute zaina zulatzen. Garunaldean dute zuloa. Oroigailuko ate guztietan jotzen du, aita hilaren aurpegia berrikusi gura duen umearen minak. Zulo itzel bana dute ate guztiek beste aldean.

Zuloa dut neuk ere orogailuan. Ezekielen irudia azalaratzen zait, zuloan gora. Hor nonbait egon behar du ehortzita. Itsaso guztiak ibilitako gizona, lehengusuari txikitan dirua ematen ziona. Ez tabakorik erosi gero! bota zigun behin. Artean, ez genuen zortzi edo bederatzi une baino. Hirurogei urtean egunero egunero pakete bi erre izan dot nik -jarraitu men esaten-, rubioa gainera; eta, hara! orain utzi egin behar.

Ezekielen hitzek itsaso eta mentura guztietako oihartzuna ekarri zidaten, lipar nimiño batez. Lehorretik inora aldatu gabe, hitzek ekarri digute mundua. Bada, hor nonbait egon behar du ehortzita bai. Robert Louis Stevenson-en harako liburu estrainoa hartuta ibili izaten zen. Iragelesez bide zegoen ez bait nuen azalekoa ulertzen «Underwoods» izeneko poema bilduma izan zela sinestu gura izaten dut. «Behebasoa». Stevenson.

Ezekielen hilobia aurkitu eta Stevenson bere pean gordetzen duen harlausako hilartitza jarri niezaioke. Kanposantuko guztiei jarriko nieke, likenek utzitako tarteetan; Stevensonek berak hurrengo bertsoetan eskatu zuena:

Egin ene hobia eta utz ni zazue bertan  
Zeru zabal eta izartuaren pean.

Pozik bizi izan naiz eta pozik noa.

Mesede bat, ordea, erortean.

Jarri bertso hau ene hobian:

Berton datza, luzez gurata bezala.

Menditik etxera dator ehiztaria,

Itsasotik etxera marinela.